

IPUINA ADULTERIOA DA -HITZAURRE GISA-

Iban Zaldúa

elkarri irakurriz



 BOOKTEGI



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

IBAN ZALDUA

ipuina adulterioa da

–Hitzaurre gisa–

Azala: Idoia Beratarbide

“Eta nobela, fideltasuna”, idatzi du Elenak bere koadernoaren lehen orrialdean. Hasiera on bat izan daitekeela otu zaio. Baina berriro ere galdetu dio bere buruari ea komeni den alderatze hori egitea, ez ote den egokiagoa ipuingintzaz izaki guztiz independente batez bezala aritzea: ea ez duen esaldi horrek erakusten nobelagintzarekiko mendekotasun amiñi bat lotsaemangarria, abiapuntutik bertatik, hain zuzen ere ipuingintzaren berezkotasuna eta autonomia aldarrikatu beharko lukeen testu batean, liburu hartarako enkargatu dioten balizko hitzaurrean. Balizkoa, oraindik ez delako ezer. Beraz, orain zirriborratzen hasi den eskema, itsasoari begira dagoela, agian bihurtuko da noizbait ipuingintzari buruzko hitzaurre bat. Edo agian ez.

Eta gogoan hartu du Aritzekin eskolan izandako eztabaida hura, ipuingintzaren ezaugarriez eta jatorriaz: genero bezala nobela baino askoz lehenagokoa zenez, azaldu zien gelako ikasleei Elenak, biziraungo ziola defendatzen zuela Jorge Luis Borgesek, esaterako. Aritzek besoa altxatu zuen orduan, eta Elenak hitza eman zion.

–Baina hori pixka bat tranpa egitea da, ez duzu uste? Ipuingileei, argudio hori erabiltzen dutenean, ahazten zaie defendatzen duten horrek zerikusi gutxi duela, sakonean, ipuin tradizionalarekin. Haiek praktikatzen dutena nobela bezain garaikidea dela, garaikideagoa ez bada.

–Zer esan nahi duzu horrekin, Aritz?

–Tira... Ipuingintza, egun ezagutzen dugun bezala, Erromantizismotik datorrela: Hoffmann, Hawthorne, Poerengandik. Edo agian Ilustrazio garaitik, askoz jota. Hots, nobela bezala, iraultza burgesaren oinordeko dela. Nobela baino geroagokoa, akaso.

–Zer ari zara iradokitzen: ipuingintzaren modernizazioa nobelaren formaren garapenaren ondorio izan zela, haren bilakaeraren aurreko nolabaiteko erreakzioa? –Elenari ideia hura atera izana gustatu zitzaiola nabarmena zen: atsegin du ikasleek pentsarazten diotenean, eta hori ez da horren ohikoa–.

Leku onean utziko lituzke horrek ipuingile gaixoak, betiere kariñoaren eta generoaren aldeko argudioen gose dabiltzanak...!

Elenak ez zuen jakin bere entzuleek, hirugarren ikasturteko filologo-gai haiek guztiek, ironia harrapatu zuten. Aritz bera galdua zegoela ematen zuen, botatako amuari kosk egiteko ezgai.

–Bueno, ez dakit...

Elenak aurrera egitea erabaki zuen.

–Ezin da ukatu, ordea, hari bat badagoela denboran, ipuin eta fabula tradizionaletatik datorrena, eta haien eragina egon, egon zela ipuin garaikidearen erakuntzan.

–Laburtasun konpartituaz harago, esan nahi duzu...? –ildo horri ekiteko Aritz prestatuago zegoela ematen zuen.

–Laburtasun konpartituaz harago, bai –erantzun zuen irakasleak irribarre zabal batekin–. Pentsa dezagun *Dekameronean*, adibidez, edo Cervantesen ipuinetan, dela *Eleberri eredugarriakekoetan*, dela *On Kixote Mantxakoan* sartu zituenetan. Edo *Lucanor kondearen ipuinakekoetan*... Horietan, adibidez, egiletasuna aldarrikatzen hasten da, ipuin tradizionala, definizioz, kolektiboa zenean, belaunaldiz belaunaldi transmititua eta behin eta berriro eraldatua...

Elena kontziente zen operazioaren arriskuaz, behin baino gehiagotan kontu beraz eztabaidatu baitzuen bere senarrarekin. Izan ere, ipuin horiek guztiak ipuin garaikidetik banatzen zituen hesi nagusia morala zen: esplizituki edo inplizituki barneratzen zuten ikaskizuna, ipuingintza garaikideak baztertzen duena hain zuten. Baina disfrutatzen ari zen ideia-trukearekin, eta Aritzek nola erantzuten zuen ikusi nahi zuen.

Ez zion hutsik egin.

–*Dekameroneko* istorioak ipuin tradizional herrikoien estiluzio bat besterik ez dira –ekin zion Aritzek, pixka bat dudakor, eta hitzak dardarizo moduko batekin ahoskatuz, memorian arakutzen ariko balitz legez–. Alde horretatik, esango nuke haien lotura ipuinaren forma modernoarekin oso badaezpadakoa dela... *On Kixoteko* barne-ipuinez, bestalde, zer esan... Nobelaren generoaren *Big Bangaren* unean bertan kokatzen gaitu horrek atzera, ez duzu uste?

Zorionez, *Eleberri eredugarriak* eta Don Juan Manuelez ahaztu egin zen, hor ere bazegoen nondik tiratu-eta, pentsatu zuen Elenak. Edonola ere, Aritzen interbentzioak *excursus* mamitsu baterako aukera eskaini zion irakasleari, eta egun hartan pozik atera zen eskolatik, aspaldi ez bezala.

Gero, atzera begira, Aritzez egun horretan bertan maitemindu zela erabaki zuen.

Nahiz eta ziurrenik ez eskolan zeuden bitartean –burua okupatuegi zeukan une horretan eztabaida eta azalpenetarako argudioekin–, baizik eta ondoren, Aritz bulegora etorri zitzaionean tutoretza-orduan, bibliografia gehigarriaz galdezka.

Halako uneak, edonola ere, denborarekin baino ez dira bihurtzen esanguratsu. Ikaslearen bisita amaitu eta Elenak ez zion esan bere buruari “maitemindu egin naiz”, zehazki. Baina handik egun batzuetara gogoratu –edo berrasmatu– zuen sentitu zuena, eta orduantxe izan zela ohartu zen. Izan ere, une hartatik aurrera ez zion Koldori ezer kontatu “beraz gustatuta zegoela zirudien” ikasle hari buruz, ordura arte, txantxetan, egin izan zuen bezala, senarraren bozkario ironikorako.

Ipuingintzaren inguruko hitzaurrea, beraz. Nondik hasi da arazoa, ikasgelako eztabaida hura gogoan: munduaren egunsentira atzera eginez, eta ipuina betidanikoa, immanentea dela aldarrikatuz, nobela eta are poesia baino lehenagokoa. Ala zuhurragoa izan eta erabakitzea ipuingintza, Elenak zinez miresten duena, hainbestetan izan duena hausnarketa gai irakasle eta irakurle gisa, jatorri berriagoa duela eta, ondorioz, izango duela, noizbait,

iraungitze data ere, idatzizko literaturako gainontzeko genero literarioek bezala. Agian hori da zuzenena, eta hizpidera ekartzea, Juan Garziak Lur Hiztegi Entziklopedikoan gaiari buruz argitaratutako artikulu gogoangarrian egin bezala, ez dela kasualitatea hizkuntza askok, ingelesak bezala, bi hitz erabiltzea genero biak desberdintzeko, “tale” ipuin tradizionalerako, eta “short story” helduentzako ipuin garaikiderako. Izan ere, ezin da kasualitatea izan, orobat, ipuin tradizionalaren eta modernoaren arteko bidebanatze hori, Aro Berriaren amaiera aldera, “haur eta gazte literaturaren” kontzeptuaren sorrera garaiaren une bertsuan gertatzea. Arlo bat zeinetara lotuta gelditu baitziren, maitagarri-ipuin izenpean, ipuin tradizional ez gutxi.

Kontu horiek ere apuntatu ditu Elenak bere kaieratxoan, eta, arkatz gorri fin batez, gezi batzuk marraztu ditu esaldietako batzuen artean.

Bista altxatu eta hondartzaren kontra burrunba eztanda egiten duten olatuak begiratu ditu berriro ere. Eta erlojuari begiratu bat eman dio: goiz da oraindik. Zerbeza gehiago eskatu beharko lukeela otu zaio. Kaietara itzuli eta marra lodi ilun bat marraztu du “i. tradizionala” eta “i. garaikidea” horien artean.

Baina ipuin tradizionalaren eta garaikidearen arteko leizea onartuta ere, pentsatu du, arazoa da narrazio literarioaren esentziaz ez dagoela adostasun osorik: ipuingileek haien ofizioaren inguruan eskaintzen dituzten ikuspegi ezberdinak eta maiz kontraesankorrak konparatzea besterik ez da behar. Baina laburtasuna generoaren izendatzaile komun oinarrizko bakartzat hartzea, autore batzuek gomendatzen duten bezala, ez zaio Elenari asegarria iruditzen. Ipuingintzaren esentziaren bat badagoela uste du, testuaren luzeraz gaindikoa. Eta hori iruditzen zaio lortzen duela, neurri batean, bere formulazioarekin: “Ipuina adulterioa da, eta nobela, fideltasuna”.

Koadernoan gora itzuli eta bi aldiz azpimarratu du esaldia arkatz gorriarekin.

Tripetan min leun bat sentitu zuen Elenak Aritz, egun hartako eskola amaitu eta gutxira, bulegoan sartzan ikusi zuenean, tutoretza orduan. Tripak beti izan dira zure kronometro morala, esan ohi dio Elenak bere buruari: zehatza,

gupidagabea, isila bezain ahalkegarria. Barrenean, ernalkinetatik ez hain urrun, unean uneko hustasun bat sentitzen du halakoetan, eta badaki zerbait gertatzen ari zaiola, zerbait aldatzen ari dela. Bere senarrak esango luke “Indarrean alterazio bat sumatzen duela”, *Star Wars*ekiko bere zaletasun gogaikarri hura hizpidera ekarriz. Egun horretan bezala, dena delakoari izena jartzen geroago arte asmatu ez bazuen ere. Izan ere, min huts hori, leuna izan arren, hain izan zen zehatza, ezen ahaztu baitzitzaion Aritzi errieta egitea bulegoko atea ez jotzeagatik, ikasleek gero eta gutxiagoetan egiten duten zerbait, bestalde. E-mailetan idazpurua ez jartzearen edo despedida gisa “Besterik gabe” idaztearen baliokide fisikoa, Elenaren ustez, horiek ere gero eta izurri zabalduagoak estudianteen komunikazio-ohituretan.

Ipuingintzaren inguruko bibliografia gomendagarriari buruzko azalpenak ematen zizkion bitartean, bien arteko adin-desberdintasunean pentsatu zuen, lehenengo aldiz, Elenak. Aritz bere ikaskideak baino pixka bat helduagoa zen, justu une horretan ezin zuen jakin zehazki zenbat, ikaslearen fitxa tiraderan zeukalako eta ez zelako ausartzen, haren aurrean, irekitzera eta kontsultatzen. Baina bazekien gutxienez hogeita bost edo hogeita sei urte zituela, eta ez besteek bezala hogei edo hogeita bat, lauhilabetekoaren hasieran, aurkezpen ekitaldian, hura bigarren gradua zuela azaldu zela Aritzek, lehenago beste bat burutu zuelako; Zuzenbidea zen, ala Zientzia Politikoak? Zientzia Politikoak, esango zukeen. Hori ere fitxan apuntatuta izango zuen, baina ezin begiratu orduan. Edonola ere, kalkulua egin zuen, eta adin-diferentzia irragarria zen guztiz, hogeita hamar urte ingurukoa. Hogeita bederatzi edo hogeita zortzi, onenean. Ziurrenik gehixeago. Elenak bere seme-alabekin duenaren antzekoa. Tiradera zabaltzeko eta ziurtatzeko bulkadari eutsi behar izan zion, Harold Bloomek literatura unibertsaleko ipuinik bere ustez onenez zioena aletzen zuen bitartean.

–Dena den –Aritzek Elenaren hitzen eta gogoeten hari bikoitza moztu zuen–, benetan uste duzu ipuin fantastikoaren eta errealistaren arteko banaketa hori, Poeren eta Txeikoven artekoa, ipuingintzaren bi ildo handiena, atxikigarria dela oraindik ere? Klasean horrela azaldu diguzu, baina niri pixka bat zaharkituta dagoela iruditzen zait. Ipuina askotarikoegia da, egun, bi eredu horietara egokitzen.

–Beno, azalpen horrek tradizio handia dauka, Aritz –Elenak mantso hitz egin zuen, betiere bere idazmahaiko kaxoia gogoan zuela–. Eta irakastea, askotan, ikasleari klasifikatzeko kutxen sistema bat eskaintzea da, tiradera txikiz osatutako komoda kontzeptual moduko bat; ez dakit ulertzen didazun. Edukiak eta ezagutzak kokatzeko mapa bat, gero, denboraren poderioz, eta ikertzen edo hausnartzen jarraitzen badu, ikasle ohiak nahierara berrantolatu ahal izango duena. Horretarako iruditzen zaizkit erabilgarriak halako sailkapenak, arazoren bat edo beste eman dezaketen arren. Baina...

–Orduan –moztu zion ikasleak–, non kokatu ia hasieratik bi ildotan aldi berean aritzen ziren idazleak, Maupassant edo Quiroga adibidez? Gaur egun ere...

–Ez dut bukatu, Aritz –erantzun zion Elenak irribarre batez–. Esan nahi nizuna zera zen: nire iritzi zehatzaz galdetzen badidazu, ezetz erantzungo nizukeela, ez daudela bi ildo, bakarra baizik. Ipuin fantastikoarena. Eta kito. Eta dena dela ipuin fantastikoa, baita errealista bezala aurkezten dena ere. Bi arrazoiengatik: bat, historikoa, ipuin modernoaren jatorria hor dagoelako, Edgar Allan Poerengan batez ere, nahiz eta kronologikoki ez den horrela, akaso.

–Poek ez zituen soilik ipuin fantastikoak idatzi, ordea. Hor daude bere detektibe ipuinak, esaterako...

–Eta zuk uste duzu genero poliziakoa ez dela literatura fantastikoaren adar bat, ala? Literatura mota bat zeinetan poliziak, batzuk bederen, zintzoak baitira, eta, amaieran, justizia nagusitzen baita...?

–Tira... –Elenari samurra iruditu zitzaion ikaslearen lotsagorritzeko modua, bere zirtoaren aurrean.

–Kontua ez da hori, Aritz. Kontua da, eta protesta dezala Bloomek nahi duen bezainbeste, oso idazle zatarra zela pentsatzen baitzuen, kontua da, diot, Poe izan zela, Hawthorneri jarraituz, ipuin literarioaren forma sistematizatu

zuen lehenengoa, eta horregatik dagokio pribilegiozko aipamen hori, nire ustez. Eta operazio hori literatur munduaren bazterretan eraman zuen aurrera, bide batez esanda, eta ez kasualitatez, garai horretan Estatu Batuetakoa ez baitzen britainiar sistema literarioaren periferia urrun bat baino: ordutik aurrera hasi zen literarioki independizatzeko; baina, beno, hori beste kontu bat da. Edozein modutan ere, historikoaz gain, beste arrazoa ipuin guztiak fantastikoak direla esateko, are “errealistak” deritzogunak ere, kontzeptuala da: ipuin batek amaiera bat inplikatzeko, forma itxi bat delako, esentzialki, eta hori guztiz artifiziala delako, naturaz gaindikoa, eta, ondorioz, fantastikoa. Ez du bizitzarekin lotura zuzenik. Nobela, ordea, irekia da definizioz, bizitza imitatzen, ordezkatzen saiatzen den neurrian, eta horregatik da, berez, “benetako” errealismoaren babeslekua. Ipuinaren literatur generoaren forma da, oinarrian, fantastikoa dena, edukiaz harago: berdin dio narrazioa mamu baten ibilera harrigarriez ari bada, edo etxeoandre baten eguneroko zoritxarrez. Gero, jakina, arautiko desbiderapenak daude, ipuina hurbiltzen diren nobelak, eta nobela izpiritua duten ipuinak, baina hori beste arazo bat da: gauza bat dira tipo idealak, Max Weberrek azaltzen zituen bezala, eta beste bat aldaeren azkengabetasuna; hori ikasiko zenuen bere garaian, ezta?

–Weberren tipo idealak? Zergatik aipatzen didazu hori?

–Ez zenituzten Zientzia Politikoetan aztertu, akaso?

–Ez, nik ez nituen Zientzia Politikoak egin, Zuzenbidea ikasi nuen...

–A, bai, Zuzenbidea; barkatu. Bueno, hor ere ez litzaizuekeen gaizki etorriko Max Weber pixka bat estudiatzea, alafede...

–Gradua egin nuen, bai, baina aitor dut ez niola pasio gehiegirik eskaini...

–Zer dela eta?

–Gurasoen inposaketa izan zen; bueno, aitarena batez ere –Elenak jarraitzera animatu zion begiekin–. Gradu “serio” bat egin nezan nahi zuen, etorkizunerako “oinarri” bat eskainiko zidana.

–Filologia ez bezala.

–Literatura ez bezala. Horregatik egiten ari bainaiz filologia, literaturagatik. Baina hori, jakina, nik ordaindu beharra daukat, gurasoek ez didate sos bat eman bigarren gradua egiteko...

–Ez didazu esango idazlea izan nahi duzula... –Elenak beste samurtasun kolpe bat sentitu zuen bere baitan.

–Eee...

–Ba kontuz ibili. Hori bada zure ametsa, ez nuke zapuztu nahi, baina halakoetan beti gogoratzen naiz Gabriel Zaidek esan zuen zerbaitez, buruz aipatuko dudana, baina gutxi gorabehera honela zioena: idazle gazte batek nobelak idaztearekin amesten du, baina prestakuntza falta zaiola sentitzen du. Eleberrigile handiak irakurtzeko aholkatzen diote, baina jatorrizko hizkuntzan. Dostoievskirekin liluratzen da, eta hogeit hamar urte geroago ez da eleberrigilea, errusierazko itzultzailea baizik. Edo letretan doktoretza ateratzeko aholkatzen diote, narratologian espezializatuta, eta hogeit hamar urte geroago ez da nobelagilea, semiotika irakaslea baizik...

–Dostoievskirekin baino, Txekhovekin zehatzagoa izango litzateke, nire kasuan...

–Zure gustua goraiatu baino ezin dut –esan zion Elenak, erreberentzia moduko bat zirriborratuz idazmahaiaren beste aldetik–. Bide batez, Txekhov ez da benetan idazle errealista bat, moralista bat delako, funtsean. Baina hain ondo disimulatzen du, ezen errealismoaren zakutoan sartzea, abiatzeko behintzat, zilegi baita haren kasuan...

Elkarrizketa hark bide horietatik jarraitu zuen pixka bat gehiago, Aritzek bere koadernoan jaso, eskerrak eman eta agur esan zion arte: bostekoa eskaini zion despeditzeko, Elena harritu zuen keinu batekin, eta emakumearen eskuari espero izatekoa zena baino luzeago heldu zion, edo hori iruditu zitzaion behintzat, eta pixkana erretiratu zuen, hatzak mantso irristatuz bere ahurrean zehar; emakumeak berriro sentitu zuen hustasun mingarri hori urdailaren azpialdean. Ikasleen fitxategia atera zuen atea itxi bezain laster, eta Aritzena bilatu zuen. Zuzenbide ikasketena ondo apuntatuta zeukan, auskalo nondik aterako zuen Zientzia Politikoena. Adin desberdintasuna hogeita hamabi urtekoa zen, zehazki. Irrigarria baino gehiago.

Zergatik ez, baina? Azken batean, ez zen bera izan Aritzengana jo zuena, alderantziz baizik, mutila izan zen so horiek botatzen hasi zitzaiona, bere begi berde-marroixka sakon haiekin, eta behin eta berriro parte hartzen zuena eskoletan, ikaskideentzat gogaikarri suertatzeraino batzuetan, eta etengabe egiten zuena berarekin topo fakultateko korridoreetan eta bibliotekan. Hasieran, Koldori kontatzen zionean, gaininterpretazioan erortzen ari ote zen galdetzen zion, barrez, bere buruari, baina Koldok esaten zion zergatik ez, gauza horiek gertatzen zirela, erakarpen intelektuala egitate bat zela, eta mutilak pena pixka bat ematen ziola. Elena ez zen sekula emakume ederra izan, baina hori, bere buruari aspalditik esaten zion bezala, abantaila bat zen epe luzean, gaztetan oso goapoak zirenek areago egiten zutelako behera adinarekin, bera bezalakoek ondo, are hobeto eusten zioten bitartean. Gainera, hor zegoen erakarpen intelektuala, noski, itsasargi bat bezain indartsu. Eta senar-emazteek barre egiten zuten elkarrekin txorakeria horiekin.

Orduan txantxa bat bezala hartzen zuen, edo zuten, baina ipuingintzaren inguruko eztabaidaren egun horretatik aurrera Elenak sentitu zuen ez zela gehiago hala izango, ez modu berean behintzat. Eta ez zizkion gehiago kontatu Koldori ikasle haren ingurukoak. Senarrak, bere aldetik, ez zuen berriro hartaz galdetu.

Eztabaida haren oihartzunek, baiki, oraindik elikatzen dituzte Elenaren hausnarketak, hitzaurre horretarako erabili nahi dituen ideia zirriborratuek

argiki salatzen duten bezala. Arazoa da nola jarraitu ipuin guztiak, funtsean, fantastikoak direla argudiatu ondoren. Ipuingintzaren historia labur bat eman dezake ondoren, XVIII.-XIX. mendeko hastapen horietatik abiatuta XXI. mendeko bigarren hamarraldira arte. Baina, nola antolatu? Linealki? Ez dirudi ideia onena, ipuingintzak literatura nazional bakoitzean izan duen pisu espezifikoa ezberdinari kasu egiten bazaio. Emergentsia-une diferenteez aritu daiteke, halaber, eta XX. mendeko ipuin estatubatuarraz hitz egin, ipuingintza-izebergik garrantzitsuena ziurrenik, objektibismoarako eta konbentzionalki errealismoa deitzen den horretarako bere joera sikuarekin –nahiz eta ez den horren sikua Hegoaldeko idazleen ekarpena kontuan hartuta, esaterako—. Eta Kafkaren ipuingintzaz eta Europa Erdialde-ekialdeko tradizio guztiaz, fantastikorako jite berezi horrekin, Italiako ipuingile batzuk ere hartzen dituen bere baitan. Eta boom garaiko ipuin iberoamerikarraz eta errealismo magikoaz, García Márquez, Rulfo edo Carpentierrekin. Baina zeinetan, bestalde, hain zaila baita Borges edo are Cortázar bezalako ipuingileak sartzea, garaikoak izan arren: Elenari beste zerbaite iruditu zaizkio betidanik. Eta klasifikatzeko gero eta zailagoak eta lainotsuagoak bihurtzen ari diren egungo joeren nahas-masa, non mota guztietako bideak bizi eta garatzen diren elkarrekin, erradikalenetatik araukoenetara, hainbeste ezen egile eta ikerlari batzuek, antzinako poetika zurrunen baliagarritasun eza azpimarratuz, *postipuinaz* hitz egiten baitute, Eloy Tizónek defendatzen duen bezala.

Nahiz eta hori, Elenarentzat, ez den generoaren barruan dagoen esperimentatzeko eta mugekin jolasteko gogoaren isla baizik. Esperimentazioa, nobelaren ikurra izan zena XX. mende ia guztian zehar, agian 1970eko hamarraldira arte, errazago egiten duelako ipuingintzan habia gaur egun, nobelagintzak, merkatuaren gora-beheren mendekoago denak, konbentzionalagoa izateko joera duen bitartean. Colm Tóibínek ondo azaltzen zuen: libreago sentitzen zela ipuinak idazten dituenean, nobelak baino, “ipaina inozentea delako munduarekin duen harremanean. Ez du ezer nahi. Artearen aldeko artea da. Poesia idaztearen antzeko zerbaite”.

Elenak argi daukana ipuingintzaren independentzia da, beste literatur generoekiko diferentzia erradikala alegia, eta hitzaurrean hori

azpimarratuko duela uste du. Nobelarekiko distantzia, batik bat. Beti dagoelako jendea, are irakurzalea dena, ipuina nobelaren morroitzat jotzen jarraitzen duena, nobelarako prestakuntza urrats bat balitz bezala, edo proba-leku hutsa. Eta Elenak badauki ez dela hori, inondik ere, eta badaudela ipuinlari petoak, sekula ez direnak bikainak izango nobelagile gisa, gogor ahaleginduta ere, eta nobelagileak apenas dakitenak zer egin prosazko fikziozko testu labur baten erronkari aurre egin behar diotenean. Horixe da, askotan, udako gehigarrietako edo *ad hoc* prestatutako ipuin bildumen arduradunek kontuan hartzen ez dutena, egile “entzutetsu” bati ipuin bat idazteko eskatzen diotenean –eta, “entzutetsua” bada, seinale, oro har, nobelagintzan dabilela, bestela nekez izango baitzen ezaguna–. Halako esperimientuen emaitzek, ezinbestean, porrot egiten dute, eta ez da egileen errua, haiek zinez saiatu direlako ahalik eta ipuin onena idazten, hautatu dituen pertsona fisiko edo juridikoarena baizik.

–Ez nago horretaz horren seguru –bota zion behin, erronkari, Koldok.

–Hasi izenak ematen, orduan –erantzun zion Elenak, gaztelaniaz ere, hura baitzen, ordurako, erabiltzen zuten hizkuntza, batez ere umeak aurrean ez zeudenean.

–Calvino, adibidez –Koldo irakurle ona zen, eta ez soilik bere arloko, arkitekturako liburuena. Elenak eta biek askotan hitz egiten zuten literaturaz, eta emakumeak bere hausnarketetarako *punching ball* gisa erabiltzeko ohitura zeukan.

–Calvino ipuinlaria da, funtsean.

–Bale, baina nobela onak dituenik ezin duzu ukatu.

–Bota.

–Baroi igokaria, adibidez.

–Ez dit balio, hori ipuin bat da.

–Nobela da baina!

–Nobela gisa saldu zen, zalantzarik gabe, eta nobelatzat jotzeko orrialde kopuru egokia dauka. Baina, funtsean, izpirituan, ipuin bat da, ipuin luzatu bat.

–*Baldin negu gau batez bidaiari batek*, orduan –baina Koldori egiten ikusi zion keinuagatik izenburua ahoskatu bezain laster damutu zela ohartu zen. Arrazoiz, pentsatu zuen Elenak.

–Ipuinez osatutako ustezko nobela bat.

–Ados, ados. Zer iruditzen zaizu Faulkner, orduan? Ipuin ederrak ditu...

–Salbuespenak. Tipoa nobelagile petoa zen; ipuinetan efektu gehiegi sartzen saiatzen zen, nobeletan egiten zuen bezala, eta horrek hondatzen zuen ahalegina, ipuinek konplexutasuna neurri bateraino baino ez dutelako onartzen. Zure izenkide Koldo Izagirreri antzeko zerbait gertatzen zaio, bide batez esanda –gehitu zuen Elenak, bere senarrari euskal literatura apenas interesatzen zitzaiola ahaztuta–. Gainera, Faulkner bera oso kontziente zen horretaz: “Porrot egin duen poeta naiz. Agian eleberrigile guztiek poesia idatzi nahi dute lehenik eta behin, ezin dutela ohartu, eta orduan ipuinarekin saiatzen dira, poesiaren ondoren forma zorrotzeta baita. Eta horretan huts egitean, orduan bakarrik ekiten diote nobelak idazteari”. Bon, hori ezin zaio Izagirreri aplikatu, ez osoki behintzat, argi dago...

–Eta zalantza egiten dut Faulknerrek benetan sinesten zuen esaten zuena: apalkeriaren kontrako alarma guztiek salto egin didate aipu hori entzutean –Koldok une batez pentsatu, eta jarraitu zuen–. Joyce Carol Oates.

–Nobelagilea.

–Seguru?

–Beldurrezko azpigeneroan ipuin duinak idatzi ditu, formulazkoak beraz, puntuak kentzen dizkiona ipuingile peto bezala. Baina izpiritualki nobelagilea da, zalantzarik gabe.

–Mercè Rodoreda.

–E, hor harrapatu nauzu. Edo ia –Elena segundo batzuk aritu zen memorian arakatzen–. Baina ez zituen hainbeste ipuin idatzi, azken batean, onak idatzi zituen arren... Nire epaia: nobelagilea.

–Badakit: Ian McEwan –garaipenaren doinua zeukan Koldoren ahotsak.

Elenak gorroto zuen eztabaidak galtzea, are partzialki bazen ere, baina bazekien disimulatzen, eta arrazoia eman behar izan zion. Senarrak gogoan zuen, jakina, zenbat gustatu zitzairen biei McEwanen lehenengo ipuin liburua, *Lehen maitasuna*, azken errituak, eta Elena, bereziki, hura izan zela Koldok egin zion aurreneko oparrietako bat, elkarrekin irteten hasi berriak zirenean. Haren hurrengo bilduma, *Izaren artean*, oso ona iruditu zitzairen, halaber. Baina McEwanen lehenengo eleberriak, laurogeiko hamarraldian zehar argitaratutakoak, arrakastatsuak izan arren, ez zitzaizkien bereziki gustatu: bazegoen haietan zerbait ez zuena funtzionatzen, nobelagile izateko grina gehiegizko batek kalte egingo balie bezala. Elenaren ondorioa zalantzagabea zen: karrera literarioa egin nahi izatearen presiopean ipuingile-dohainak alferrik galtzen ari zen idazle bat gehiago. Baina uneren batean, laurogeita hamarreko hamarraldiaren bigarren erdialdetik aurrera, *Maitasun iraunkorra* nobelarekin, eta, batez ere, *Hoben ordaina* argitaratu zuenean, onartu behar izan zuen nobelagile petoa bihurtu zela McEwan: egoskor, bere burua behartzearen behartzeaz lortu egin zuen, azkenean. Izan ere, ingelesak ipuinak argitaratzeari eta, ziurrenik, idazteari utzi zion guztiz, eta Elenak isilka erregutzen zion gauza bakarra zen, adinarekin, itzul ez zedila bere gaztaroko generora, hots, ipuingintzaren eta idazlearen balizko dekadentziaren arteko lotura egiteko susmorik eman zezakeen ezer ez zezala egin. Hasierako liburu haien “anomalia” hasiberriaren apetatzat hartzeko susmoaren arriskuarekin nahikoa zeukan irakasleak. Baina hain ziren onak lehenengo liburu haiek...

Ondo konpontzen zen Koldorekin. Bizitza lasaia zuten, seme-alabak nagusiak ziren jada, pisua ordainduta zuten, eta lan onak zeuzkaten, krisi ekonomikoek, globalizazioak, ziurgabetasunaren hazkundeak eta klase ertain mendebaldarraren gainbeherak larriki higitu ez zituztenak, oraindik. Erretiroaren gaia, pixkanaka, elkarrizketetan irazten hasia zen, hala etxekoetan nola lagun artekoetan.

Baina Elena gero eta urrunago sentitzen zen senarrarengandik. Denborarekin, haren arkitektura-estudioaren prestigioak gora egin zuen, eta gero eta proiektu-agindu gehiago jaso zituen, lanari lotuago egotera eramanez. Jadanik ez zituzten horren maiz izaten bakoitzaren irakurketen inguruko iritzi-truke horiek. Eta gero erakarmen fisikoaren kontua zegoen, noski, Elenari asko apaldu zitzaiona azken urteetan. Giuseppe Tomasi di Lampedusak idatzi bezala, "Maitasuna. Maitasuna, noski baino noskiago. Sua eta sugarrak urtebetez, errautsak hogeita hamar urtez". Lehenengo epearekin zalantzak zituen Elenak, ezkorregia irizten baitzion; bigarrenarekin, ez hainbeste. Koldo ez zirudien aldaketaz ohartzeko zenik, edo, ohartzeko bazen, agian ez zitzaion inporta. Ondo koipeztatutako egunerokotasunaren makineriaren errodateak asko errazten zituen gauzak, zer esanik ez.

Horregatik durduzatu zuen hainbeste Aritzetikiko sentitzen zuenaz ohartu izanak. Elena aspaldi ez zelako sentsazio horretaz oroitzen. Sentsazio horren *fisikotasunaz*. Tripako minez.

Eta gogoratu zuen nola egiten zuen barre Koldorekin berarekiko Aritzen ustezko apertaldiaren lehen sintomak komentatzen zizkionean. Begiradaxoak, galdera urduriak, ezbaiak, totalka botatako esaldiak. Irakaslearen arreta erakartzeko erakustaldiak. Koldok erantzuten zion "Zergatik ez? Ni ere zutaz maiteminduko nintzateke, zure ikaslea banintz". Eta Elenak barre egiten zuen, eta gero kontuaren inguruko alderdi legala eta morala aztertzen zuten; azken kasu horretan ikaslearen gaineko botere-posizio bat edukitzeak gertakari hipotetikoa guztiz arbuigarria bihurtzen zuen, emakumearen ustetan, baina ez horrenbeste, Koldorenean, baldin eta

bi aldeetatik onespena bazegoen. Eta, edonola ere, lauhilabetekoa amaitu arte itxarrotearekin, mutikoak gainditu arte, nahikoa, gehitzen zuen senarrak, zirtolari.

Baina hori aspaldi izan zen, edo hala iruditzen zaio egun Elenari.

Hori guztia burutik kendu ezinik badabil ere, aurrera egin behar du hitzaurrerako eskemarekin. Ipuingilearen izaera bereziaren –eta halabeharrezko espezializazioaren– ingurukoak argitu ondoren, bere formulazioaren inguruan azalpen gehiago eman beharko lituzkeela otu zaio. “Ipuina adulterioa da, eta nobela fideltasuna”. Laburtasunaz gain ipuinak baduelako, Elenarentzat, dimentsio berezi bat, lehen irudikatu duen biribiltasunarekin eta amaieren garrantziarekin zer ikusia izango lukeena. Azken finean, ipuin batek beti traizionatu egin behar du, maila handiagoan edo txikiagoan, irakurlearen ustea. Ez bakarrik hori, areago, horretarako irakurlea zerbaiten aiduru egon dadin lortu behar du, hasieran, eta, ondoren, buelta eman behar dio, erein duen itxaropen hori zapuztuz. Hori guztia, gainera, orrialde kopuru mugatu batean. Horretarako, dudarik gabe, tresna ezberdinak erabiltzen ditu idazleak: amaiera sorpresaduna, intentsitatea, tentsio estalia, bat-bateko edo dosifikatutako epifania... Ricardo Pigliaren ipuinen baitako A eta B istorioen arteko konbinaketa guztiak, alegia. Nobela onek, ordea, mundu bat eratu behar dute, bizitzaren imitazio bat, denboraren ordezkotako bat, zeinetan fideltasuna oinarritzakoa baita, hasieratik eta metaketa bitartez eraikitzen den konfiantza-harreman hori berretsiz. Horregatik ez dira horren onak –horren *nobela*– azkeneko orrialdeetan buelta ematen diotenak istorioaren hari nagusiari. Horregatik dira halakoak, funtsean, ipuin puztuak, Ambrose Biercek ikusarazi zuen bezala.

Joy Williams idazleak oso grafikoki azaldu zuen behin, elkarrizketa batean: “Nobelak zure laguna izan nahi du. Ipuin batek ez du hori ia inoiz egiten”.

Literaturaren funtzio nagusia betetzen dute bi generoek, bizitza ulertzen, hots, bizitzen laguntzen baitute. Baina modu oso ezberdinean egiten dutela iruditzen zaio Elenari: nobelak, idealki, bizitza bera ordezkatzuz, eta ipuinak txerto batek bezala, gure baitan bizitzaren birus edo bakterio indargabetuak

–murriztuak– inokulatuz, existentziari aurre egiteko antigorputzak sortzen lagun diezaguketenak. Eta horretarako oso idazle mota ezberdinak behar dira.

Ideia hori aurrekoekin lotu du atzera Elenak, gezi berri batzuk marraztuz kaieran. Ondoren “Alice Munro afera” idatzi, eta, alboan, arkatz gorriaz hori ere, galdera ikur bat marraztu du, behin, bitan. Izan ere, ez daki hitzaurrean erabili beharko lukeen, eta erbia harrotu, ala ez.

Kaiera eta boligrafoa mahaiaren gainean utzi eta, begirada itsaso aldera zuzenduz, garagardoari beste trago bat lapurtu dio Elenak.

Gelako eztabaidarena igaro eta aste batzuetara izan zen. Begirada konplizeez eta eskoletako ohiko galderen eta iruzkinez gain, ez zen ezer esanguratsua gertatu Aritzekikoan, urdailpeko min-ziztadez harago. Elena saiatzen da alde zaharreko ostegun gauak saihesten, ez duelako gehiegi atsegin ikasleekin topo egitea aisialdi-orduetan, baina egun hartan mintegi bat izana zuten beste unibertsitate batzuetatik propio etorritako irakasle eta ikertzaile batzuekin, eta haiekin buelta bat emateko eta afaltzeko ateratzea ezinbestekoa zen. Bigarren gin-tonicarekin ari ziren, barran, txabiske haren hondoan Aritz ikusi zuenean, billar mahaiaren inguruan, adiskideekin jolasean. Elenak ez zuen haren gelako ikaskideetako inor ezagutu haien artean; pisu kideak izango zituela ondorioztatu zuen. Mahuka luzeko kamiseta beltz bat zeraman jantzita, lepo osoa agerian uzten ziona, nabarmenki. Lepo hura naturaren opari bat zela iruditu zitzaion.

Beste aldera begiratu zuen, azkenik, Murtziako unibertsitateko katedradun harekin hizketan jarraitzeko, baina Aritzek ikusia zuen jada, eta atzetik ukitu zuen, bere arreta erakartzeko. Jiratu gabe ere, sorbaldan haren hatzen presioa sentitu bezain laster mutila zela jakin zuen, eta berriro nabaritu zuen hutsune hori sabelpean. Irribarre batez hartu zuen, bere ezinegona ahal izan zuen bezala disimulatuz, eta, berehala, zigarro bat erretzera ateratzeko aitzakiarekin, tabernako kanpoaldera erakarri zuen. Hotz pixka bat egiten zuen, baina aire hotzak on egiten ziola iruditu zitzaion Elenari, baretzen

zuela, hori ere zigarro piztu berriaren efektua izan zitekeen arren. Bakarrik zeuden kanpoan.

Ohiko konplimendu eta topikoen ostean, Aritzek kontatu zion kasu egin ziola eta irakurri zuela Alice Munroren *Etsaiak*, *lagunak*, *ezkongaiak*, *maitaleak*, *senar-emazteak*, baita izugarri gustatu zitzaiola ere; ari zela egile horren beste batekin, gaztelaniaz oraingoan, *Escapada* izenburukoarekin.

–Itzulpen horri buelta bat falta zaio, nire uste apalean –esan zion Elenak–. Irudipena daukat Munro hobeto dagoela itzulita euskaraz, gaztelaniaz baino. Gutxitan irabazten dugu ligaxka horretan, euskarara itzultzen dena gutxi delako, eta literatura unibertsalaren zati mikroskopiko bat baino ez baita urtero euskaratzen. Baina Munrorekin badaukagu zertaz harrotu, nik uste. Munrorekin eta bere itzultzaileekin, Nagore Tolosa eta Isabel Etxeberriarekin alegia.

–Ipuingileentzat onuragarria izan da Munro, ezta? Ipuingile peto batek, nobela bakar bat ere idatzi ez duenak Nobel Saria irabaztea, diot. Ikusgarritasuna ematen dio generoari.

–Ez dizut hori eztabaidatuko, Aritz: nik ere hori uste dut, eta ipuingile gaixoak tratatzea besterik ez dago konprobatzeko zenbat etekin atera dioten Munroren aldarrikapenari. Utzi beharko zaie jostailu horrekin aritzen...

–Baina... –Aritzek nahikoa ezagutzen zuen horrez gero Elena, ironiaz noiz ari zen hautemateko.

–Lehenik eta behin, teknikoki ez da guztiz egia Munrok nobelarik idatzi ez duenik: bere bigarren liburua, 1971ko *Nesken eta emakumeen bizitzak*, nobela bezala saldu zen, izenburuazpi horrekin, “a novel”, ipuin-ziklo bat ere kontsideratu daitekeen arren, ipuin elkarlotuez osatutako istorio bat alegia. Hots, guztiz nobela ez balitz ere, nobelarako jitea duela esan genezake. Munro ez da, alde horretatik, beraz, Txekhov kanadar bat, are gutxiago Borges ipar amerikar bat –Elenak atxiki luze bat jo zion zigarroari, jarraitu aurretik–. Bestetik, Munroren asmo betidanikoa nobelak idaztea izan zen:

ezin izan bazuen, neurri handi batean, etxeaz eta umeez arduratu behar zuelako izan zen, gaztetan, haren gizonaren aldetiko batere laguntzarik gabe. Zaintzaren eta idazketaren arteko arrakala, gela norberarena, eta abar, badakizu: emakume idazleen madarikazio mendeetakoa. Azaltzen zuen, gaiaz galdetzen ziotenean, beti gertatzen zitzaizela zerbait hasten zituen nobelei: “hausten” zitzaizkiola. Eta egokitu behar izan zen: forma laburrak zeukan denbora hobeto probesteko aukera ematen zion. Eta imajinatzen dut gero, are zaintza lanak murriztu eta senar hura utzi zuenean, horretara egina zegoela ohartu zela, eta ipuinak idazten jarraitu zuela, betiko...

–Baina, azkenean, emaitza da kontatzen duena, ez motiboak, ezta? –Aritzen arrapostua–. Ipuinak direla, alegia.

–Laburtasunaren parametro bakarrari kasu egiten bazaio, bai. Arazoa da, azaldu dizudan bezala, Munro *ustekabeko* ipuingilea dela. Baina hori agian ez da, azken batean, horren esanguratsua, gauza asko esplikatzen dituen arren. Kontua da bere ipuinek, funtsean, nobelaren izpiritua dutela, hots, miniaturazko nobelak direla, beren konplexutasun eta meandro guztiekin. Ipuinaren erabatekotasuna galtzen da, maiz, Munroren piezetan. Noiz jabetzen gara, adibidez, “Etsaiak, lagunak...” ipuinaren gaiaz, lehenengoz? Zenbatuta dauzkat orrialdeak: hogeita hamargarrenean hasten da irakurlea sumatzen nora jo nahi duen! Hori, ipuingintza eredu arruntenetan heresia da, zuzenean. Horregatik erantzuten zuen Lorrie Moorek, nobelaren eta ipuinaren arteko desberdintasunaz galdetzen ziotenean... Barkatu, bilatu behar dut...

Eta Elenak, zigarrokina dekoraziozko upel baten gaineko hautsontzian utzita, sakelakoa atera eta hatz mugimendu bizkor batzuk marraztu zituen pantaila gainean.

–Bai, hementxe dago, honela zioen Moorek: “Desberdintasun handiena, estetikoa, narrazio-forma luzearen denbora eta konplexutasuna da. Zailagoa da denbora (subjektu eta bitarteko gisa) eta konplexutasuna egokitzea ipuin labur batean. Alice Munro ez bazara, behintzat”. Eta nik gehituko nuke: Munrok ez dituelako ipuinak idazten, nobelak baizik. Nobela-arima dituzten

ipuinak. Baina, ipuingintzaren alde, hobe honetaz gehiegi mintzatzan ez bagara...

–Hori da: ipuingintzaren alde –errepikatu zuen ikasleak.

Eta Aritzek bere Keler botila altxatu, eta topa egin zuen Elenaren gin-tonicarekin.

Gero apenas gogoratzen da hitz egin zutenaz. Hasieran literaturaz izan zen, hori seguru. Elena pixka bat hunkitzen zen literaturarekiko interesa erakusten zuten ikasleekin, ez baitzen horren ohikoa: zinezko literaturzaleak beti ziren gutxiago, edo apalagoak, dialektologiaren edo Chomskyren frikiak baino. Dena den, halako batean kontu pertsonalagoez hasi ziren –literatura ere kontu oso pertsonala baitzen Elenarentzat–, estudiante bizitzaren gora-beherez, irakasleari Bartzelonako unibertsitate zentralean bekadun egon zen garaiko anekdota ustez mamitsuen bilduma berreskuratzeko aukera eman ziona, Aritzen barre-algara ozenak pizteko nahikoa abileziarekin, bederen.

Kanpoko hotzarengatik akaso, gero eta hurbilago zeuden biak, hitz egin bitartean. Elena horretaz ohartu zenean, Aritzek burua pixka bat altxatu – Elena altuagoa baitzen ikaslea baino–, eta muxu eman zion, lepoak ezkerreko masailaren tolesdurarekin bat egiten zuen puntuan. Elenak, harrituta oraindik, muxuari erantzun zion, lepoan orobat. Sudurra bertan hondoratu, eta *after shave*aren eta izerdiaren nahasketaren lurrina xurgatu zuen instant batez. Hordigarria iruditu zitzaion, are gehiago Aritzek aurpegia bere adats artean sartu eta ezpaineekin ezkerreko belarria doi-doi igurtzi zionean. Ez daki zenbat denbora egon ziren horrela, segundo gutxi batzuk ziurrenik. Bereizi zirenean alde guztietara begiratu zuen, eta inor ez zegoela konprobatu: mirariz, haien ondoren erretzera atera ziren gutxiak itzuliak ziren tabernaren babesera. Elenak, Aritzi azalpenik eman gabe, gauza bera egin zuen, eta mintegikoekin bildu zen atzera. Laster alde egin zuen etxera.

Hurrengo astelehenean, fakultatean topo egin zutenean, ez zuten gaiaz hitz egin, ezta lauhilabetekoa amaitzeko geratzen ziren gainontzeko eskola edo tutoretza orduetan ere, eta ez zuten berriro kontaktu fisikorik izan Elenak

aktak sinatu zituen arte. Eraitza hura izan ez zedin ahalegin guztiak eginda ere –zorrotza izan zen ikaslearen lanen eta azterketaren zuzenketan, ohi bainoago–, irakasleak ezin izan zuen ekidin: ohorezko matrikula jarri behar zion Aritzi. Puntu guztietan bat ez bazetorren ere, euskal ipuingintzaren egoerari buruz entregatu zion lana bereziki tatxagabea iruditu zitzaion Elenari.

Lan horretaz gogoratu da ezinbestean, idatzi behar duen hitzaurrean, ipuingintzaren inguruko kontsiderazio orokorrez gain, euskal kasuari buruzko ohar batzuk sartu beharko dituelako, orobat. Bizenta Mogelen izena idatzi, eta berehala urratu du kaieratxoan: ederra zatekeen *Ipuin onetatik* abiatzea, ez bakarrik emakume bat kokatuko lukeelako generoaren aberri-jatorrian, baizik eta horrek ere ahalbidetuko liokeelako haren hastapenak ipuingintza mendebaldar modernoaren garapenarekin parekatzeko, eta euskal literatura idatziaren mendeetako ustezko atzerakuntzaren topikoari emendakin bat egiteko, sikiera. Baina ez da oso operazio egingarria, Bizenta Mogelen fabulen egokitzapenek zer ikusi gutxi dutelako, funtsean, narraziogintza garaikidearen bilakaerarekin, ez behintzat gaininterpretaziozko arrisku-salto batzuk eman ezean.

Eta horrek, derrigor, ohiko 1960 eta 1970eko hamarraldietako sorburuetara bideratuko du Elenaren begia, hots, Martin Ugalde, Jon Mirande eta Anjel Lertxundiren ipuin eta liburu atariko haietara, euskal literaturaren historietan behin eta berriro aipatzen direnak. Alde horretatik Alvaro Rabelliren *Eguno euskal ipuingintzaren historia*, Mari Jose Olaziregiren “El cuento contemporáneo en euskara” artikulua edo Ibon Egañak *Eskuko ekipajea* antologiarako idatzitako sarrera errepasatzea baino ez lituzke egin behar, mugarri nagusiak azpimarratu eta laburbiltzeko –hiru kritikarien izenak apuntatu ditu kaieran, haien lanen laburdurarekin batera–.

Nahiz eta, ziurrenik, azkenean ez duen ikuspegi historizista hori hautatuko, eta zuzenean joango den 1980ko hamarkadako “eztandara”: ondo dago, kritika literarioa egiten baduzu, eztabaidatzea ea euskal ipuingintza modernoaren abiapuntua *Itzailleak* ala *Hunik arrats artean* izan ote ziren, baina hori, neurri handi batean, arkeologia baino ez da, lan horien eragina

eta oihartzuna oso mugatua izan zelako, berez. Alde horretatik, hobe da zuzenean Bernardo Atxaga eta Joseba Sarrionandiarengana jotzea generoaren euskal aldaeraren ezartzaile zinezkoak bilatzeko. Besteak beste, azpimarratzeko, genesi horretan ere, ipuingintzaren erro fantastikoaren nagusitasuna, eta nola horrek hizkuntza “handietako” ipuingintzan mende bi lehenago jazotakoarekin parekatzen duen euskarazkoa, neurri ukroniko batean bada ere. Egile horien hasierako obren aipu zabala egingo du, beraz, eta baita batzuetan alboratuta geratzen den sasoi hartako aldizkari literarioen ugaritasunarena –*Pott, Oh! Euzkadi, Susa* eta enparauetara–, aldizkaria izan baitzen, luzaroan, literatura garraigarri mota honetako probaleku eta erakusleihu nagusia.

Ondoren, gainontzeko egileen eta obren ibilbide bat zirriborratuko du, oso pertsonala ezinbestean, Inazio Mujikaren *Azukrea belazetanetik* hasi eta Unai Elorriagaren *Iturriara* arte. Eta idazten doa bere kaieratxoan, nahiz eta noizean behin orden kronologikoa ez duen errespetatzen, eta gorantz edo beherantz zuzentzen dituen gezi gorritxoak gehitu behar dituen: Xabier Montoiaren *Emakume biboteduna* eta *Gasteizko hondartzak*, Arantxa Iturberen *Ezer baino lehen*, Juan Garziaren *Itzalen itzal*, Pello Lizarralderen *Sargori*, Harkaitz Canoren *Telefono kaiolatua*, Patxi Iturregiren *Haize kontra*, Jose Luis Otamendiren *Euri kontuak*, Javi Cilleroren *Hollywood eta biok*, Jokin Muñozen *Bizia lo*, Uxue Apaolazaren *Umeek gezurra esaten dutenetik*, Karlos Linazasororen *Diotenez*, Ur Apalategiren *Fikzioaren izterrak*, Eider Rodriguezen *Haragia* eta *Bihotz handiegia*, Ana Malagonen *Lasai, ez da ezer gertatzen* eta *Geratu zaitetze gurekin*, Urt Zubiaurreren *Izenik gabeko lurrak*, Garazi Arrularen *Gu orduko hauek*, Gotzon Hermosillaren *Gaur galtzea tokatzen da*, Aintzane Usandizagaren *Kabitu ezina*, Iñigo Aranbarriren *Munduko tokirik ederrena*. Geziez gain, galdera ikur bat marraztu du *Lasai, ez da ezer gertatzenen* ondoan.

Eta ondorioztatu, ezinbestean, inguruko literaturetan bezala, aniztasuna dela nagusi egungo euskal ipuingintzan, goratasun-arnasako proiektuak ez direla urriak gure artean, eta generoaren osasuna ona dela, erlatiboki behintzat.

Aritzez eta haren lanaz oroitzen bada, ez da kasualitatea, euskal literaturaz apenas eztabaidatu baitu Koldorekin azken urteotan. Elkarrekin hasi zirenean, Bartzelonako urte honezkero mitifikatuegi haietan, hiri handian topo egin zuten bi euskal herritar zintzo arduratsu eta militante ziren – doktoradutza bekarekin Elena, arkitektura-estudio batean praktketan Koldo–, eta haien artean euskaraz hitz egiten saiatzen ziren, ingurutik desberdintzeko asmo desafiatzaile agian xalo batekin. Koldo, ordura arte Luis zena eta izen-aldaketa Kataluniara joatean egin zuena hain zuzen, euskara ikasten ari zen Bartzelonako Euskal Etxeko gau eskolan, sorterrian hasitako prozesuari jarraiki, eta gero eta hobeto moldatzen zen arren, komunikazioa ez zen guztiz arina izatera iristen, eta maiz pasatzen ziren gaztelaniara – katalanak gero eta gaztelania kutsatuago batera–. Baina arazoari ez zioten irizten, hasiera batean, larriegia, egoeraren behin-behinekotasunaren ondoriozko desdoitze xumea baizik. Euskal Herriak independentzia eta sozialismoa lortzean amaituko ziren behin-behinekotasun guztien parekoa, alegia.

Bikoteak ez zion eutsi euskararen erabilerari. Elenak beti egotzi zion azkeneko hesia gainditzeko ezintasunari: ohe-jolasetarako hizkuntza ofiziala gaztelaniak izaten jarraitu zuen, are elkarrekin euskaraz aritzearena serioen hartu zuten unetan. Larrutan egitean gordin hitz egitea gustatzen zitzaion bioi, eta Elenak ahalegin bat edo beste egin bazuen ere, laster etsi zuen; Koldori ez zitzaion sekula atera. Izan ere, eduki zuten bikote-krisi serioena euskararen estres harekin ere lotzen zuen, atzera begira, Elenak: Euskal Herriko Unibertsitatean eskolak ematen hasteko aukera sortu zitzaionean, non kokatuko ziren eztabaidatu behar izan zuten –Koldo gora egiten ari zen lan egiten ari zen Eixampleko arkitektura-estudio hartan, eta lekualdaketak ia zerotik hastera behartuko zuen–. Gizonak eman behar izan zuen amore, azkenean, eta Gasteizera bizitzera joan zirenean, ezer adostu gabe ere, euskaraz elkarrekin hitz egiteari utzi zioten bat-batean, eta bien artean egondako gorabeherak linboan geratu ziren, ahaztuta bezala. Xabi eta Juneri, mundura etorri zirenean, euskaraz egingo zieten biek –Koldok trakeskiago Elenak baino, zer esanik ez–, baina haien bien arteko hizkuntza nagusia gaztelania izan zen beti, eta, ikastolara bidali bazituzten ere,

azkenean hura nagusitu zen familia-hizkuntza bezala ere, seme-alabak nerabegarora iritsi zirelarik.

Edonola ere, urteek eragindako higadura eta guzti, Elenak jarraitzen zuen atsegin hartzen Koldorekin literaturaz hitz egiten zuenean, bakanagoetan gertatzen zen zerbait, seme-alabak haztean eta autonomoago egitean gero eta gehiago entzerratu zirelako norbera bere mundutxoan. Baina ia beti izaten zen gaztelaniazko edo gaztelaniara itzultitako liburuez, eta pena zuen lanbide zuen euskal literaturaz ezin hitz egitea Koldorekin. Saiatzen zen, noski, noizean behin gusta zekiokoen izenburu bat hautatzen eta senarrari pasatzen, eta, hasieran, liburuok arduraz leitzen bazituen ere, asko kostatzen zitzaiola aitortzen zion Elenari, ez zeukala erraztasunik, eta gero eta gutxiagoetan irakurtzen zituen halakoak. Ez soilik horregatik, baina: euskal literatura, oro har, ahula iruditzen zitzaion Koldori, irakurle fina zena eta literatura orokorraz mintzo zirenean intuizio ederrak eskaini ohi zizkiona bere emazteri. Baina ezin zuen euskarazkoarekin, ez zitzaion lehiakorra iruditzen, gaztelaniaz eta, azken aldira, geroz eta gehiago, ingelesez irakurtzen zuenarekin konparatuta. Eta Elenak kontu handiz aukeratzen zizkion aholkatzen zizkion liburuak, urtean zehar argitaratutako onenen artean hautatzen zituen, baina hark “meh, es tramoya pura, mucho fuego de artificio y poca chicha”, “no es más que un pobre intento de imitación de Sebald” edo “¿por qué se empeña en explicar las cosas dos, tres, cuatro veces? Los lectores no somos tontos” bezalako iruzkinekin itzultzen zizkion, ondorio gisa euskarazkoa literatura argiki azpigaratu bat zela gehituz, batzuetan. Gero eta gutxiago egiten zuen ahalegina, beraz, eta horrek ere bien arteko arrakala zabalago bihurtu zuela sinetsita zegoen Elena.

Horregatik ere gustatzen zitzaion Aritzekin egotea. Hark ere konpetentzia handiagoa erakusten zuen literatura “unibertsaleko” kontuez hitz egiten zutenean, euskal literaturakoez aritzen zirenean baino, baina saiatzen zen – horretarako ikasten ari zen, azken batean–, eta euskaraz idazteko asmoa zuenez, interesatuta zegoen. Elenaren gomendioak irakurtzen hasi zen – horietako batzuk garai batean Koldori egin zizkion berberak–, eta batzuetan, elkartzen zirenean, amodioa egin ostean –suabe-suabe aritzen ziren, elkarren beldur balira legez, eta Koldorekin ezagututakoarekin alderatuta,

oso bestelako moduan—, liburu horiek komentatzen zituzten, hoteleko ohean etzanda zeudela.

—Eta?

—Ba... Ez dakit gustatu den hitza, baina ikaragarria iruditu zait. Ipuin asko zaplastako bat bezalakoak dira. Eta bitartekoen ekonomia handiarekin! Batzuk benetan laburrak dira.

—Ba hitza gustatu da, sentitzen dut, horretan irmoa naiz —arrapostu egin zion Elenak—. Ezeroso sentiarazten zaituen zerbait gustatu ahal zaizu. Izan ere, hori da literatura onaren ezaugarrietako bat. David Foster Wallacek kontatzen zuen bere irakasle batek zioena: narratibarik onenaren zeregina urduria lasaitzea eta lasaia urduritzea zela esaten zuena. Eta nik gehituko nuke narratibaren alorrean lehenengoa nobelaren zeregina dela, batez ere, eta lasaia urduritzearena, ipuinarena. Nahiz eta ez dakidan Foster Wallace nirekin ados egongo litzatekeen; bide batez, ez dut kasualitatez aipatzen testuinguru honetan, idazle horren ipuingintzak eta Apaolazarenak badaukatelako lotura. Edonola ere, pozten nau jakiteak gustatu zaizula. Hurrengoa Malagonekin probatu beharko zenuke.

—Zeinekin? Mikroipuinaren liburuarekin, ala bestearekin?

—Bueno, orain ematen ari natzaizuna ipuingintzaren inguruko mintegi pertsonalizatu bat da —tonu ironikoa erabiltzen saiatu zen Elena, ohean pixka bat hondoratuz eta bere begiak Aritzenen parean ipintzen saiatzen zen bitartean—. Eta nik nire zalantzak ditut ea mikroipuina eta ipuina genero berekoak ote diren. Argi dago mikroipuinak, gehienez orrialde bat okupatzen duten narrazio gisa definitzen baditugu, ipuinetik hurbilago daudela nobelatik baino. Baina, bestalde, badute kidetasunik aforismoarekin eta poesiarekin ere. Nik uste dut beste lege batzuek agintzen dutela mikroipuingintzan, bizkortasuna eta sorpresa-efektua oro baitira alor horretan. Ipuingintza “estandarrean” ere izan daitezke inportanteak, noski, baina beste elementu batzuekin batera, esango nuke. Agian mikroipuina hiper-ipuin bat besterik ez da, ipuingintzaren ezaugarri batzuk muturrera

eramaten dituen artefaktua alegia; ipuinaren erro koadro moduko bat. Horregatik esango nizuke haren bigarren liburua leitzeko, *Geratu zaitzete gurekin*, ipuin “konbentzionalagoez” osatuta baitago. Baina bestea ere, mikroena, ona da.

Eta atzera bildu egin zen Aritzen besoen babesera. Handik eta minutu batzuetara, xalo-xalo, mutilak galdetu zion arte ea minibarretik M&M batzuk hartu zitzakeen.

Jakina Elenak pentsatzen zuela egiten ari zirena erokeria bat zela: batez ere *bera* egiten ari zena. Baina biziberritua sentitzen zen Aritzen ondoan, energia gehiagoren jabe, ederragoa, eta, batez ere, azkarragoa. Eta Aritz ere, behin eta berriro esaten zion bere buruari, ez zen gainontzeko ikasleak bezalako: gehiago zekien, interes handiagoa zeukan, bere galdera eta iruzkin zorrotzekin *pentsarazten* zion, ekarpen bat egiten zien bere irakurketei eta hausnarketei. Ez zen kontu fisiko hutsa, hori ere bazen arren, Aritzen gorputz gaztea, hasiera batean estrainioa egin bazitzaion ere haren bilogabetasunean –belaunaldi berrietako mutil gazteen depilaziorako joerari buruzko susmo guztiak konfirmatu zizkiona–, perfektua zelako. Hogeien erdialdean dauden gazte guztiena bezala, esaten zion bere alde ilunak, egoeraren lohia eta desegokitasuna behin eta berriro gogorarazten zion barneko ahots tematiak. Zeinari beti erantzuten baitzion egiten ari zirena ez zela inolaz ere legez kanpoko. Eta Elenaren solaskide bakarra zena, oraindik ez zelako ausartu kontuaz inorekin hitz egitera.

Ezinbestean, Emmanuel Carrère idazleari irakurri zion artikulua oroitzen zen, Emmanuel Macron gaztearen eta Brigitte Trogneux literatura irakaslearen maitasunezko istorio eskandalagarriari buruz aritzen zen hartaz: nola ezagutu zuten elkar, presidente izango zenak hamabost urte besterik ez zituela, Amienseko jesulagunen eskola pribatu batean; nola maitemindu zuen hogeita hemezortzi urteko emakumea ikasle gazteak, Eduardo de Filipporen *Komediaren artea* antzezlanarekin lau eskutara berridatziz eta antzerki taldea osatzen zuten hogeita bost ikasleentzat paperak eta lerroak gehituz –jatorrizko obrak zeuzkan hamarretatik abiatuz–; horrek guztiak, jakin zenean, hiri probintzianoan sortutako eskandalutxoak, eta inplikatuak

familien eta adiskideen artean eragin zuen eztanda; Brigitteren senar bankariaren ihesa, emakumea seme-alabekin utzita; Emmanueleren pertseberantzia, 2007an, gertakari haiek jazo eta hamabi urtera, Brigitterekin ezkondu zer arte.

Antzekotasunak bazeuden, noski, literatura zegoelako tartean, eta horrek hari fin batez batzen zituen, Elenaren ustez, kasu biak: literatura lotura boteretsua begitantzen zitzaion, adin desberdintasunak eta egoeraren gardentasun eza gaindiarazteko indarra gordetzen zuena bere baitan; Brigitte Trogneux gazteak, ez alferrik, maitasun kortetiarrari buruzko memoria batekin lortu zuen bere letretako lizentziatura... Baina desberdintasunei ezin zien ezikusia egin, ezta ere. Adibidez, adin diferentzia handiagoa zen –hogeita lau urte besterik ez Frantziako presidentearen eta lehenengo andrearen artean–. Bestalde, Elenak ez zekien, Aritzez maiteminduta zegoela onartzen zuen arren, halako lurrikara bat jasateko prest egongo litzatekeen, berak ez zuelako Koldorekin apurtzeko inolako asmorik, edo horretara mugitzen zuen inolako indarrik, Brigitteren kasuan agian gertatu zen bezala. Eta, azkenik, kontua publiko egitekotan ez zekien fakultatean jarraitzeko adorerik izango zuen, hots, lotsaizunak ez zuen lana uztera behartuko; Brigitte Trogneuxek, ordea, eskola erlijioso hartan irakasten jarraitu zuen aferaren ondoren ere... Baina hura Frantzia zen, jakina: beste zibilizazio bat. Kontu horiei zegokienean, batez ere.

Elenak, une batez, kaiera itxi, eta zerumugara zuzendu du begirada, bista pixka bat deskantsatzeko bederen: oharrak hartzeko letra txikiegia egiteko joera dauka, ikasle garaian fitxak osatzeko ohituratik eratorria, eta presbiziak gero eta gehiago zailtzen dio irakurketa. Badaki letra handiagoa egiten saiatu beharko litzatekeela, baina iraganaren zamak beti irabazten du. Horretan beste gauza askotan bezala. Bere buruari galdetzen dio ea mereziko lukeen euskal ipuingintzaren eboluzioa hamarkadaka zirriborratzea, eta laurogeikoaren aipatu “genesiaren” ostean, laurogeita hamarrekoa lotzea nobelaren nagusigoaren kontrako lehiarekin eta Carverren eta enparauen harrera literarioarekin, adibidez: ereduak, iberoamerikarrak izatetik, ipar amerikarrak izatera pasatu baitziren, literatura nazional askotan gertatu zen legez. Eta jarraitzea 2000koarekin, zeinetan nobelaren aurkako borroka hori

galdu baitzuen, behin betiko, euskal ipuingintzak, konfirmatuz horrela euskal literaturaren homologazio partziala inguruko literatura “handiekin”. Nahiz eta erresistentzia-txoko sendo bat eratu ahal izan zuen generoak. Eta aurkeztea 2010eko hamarraldia iraunkortasunarena eta aniztasunarena bezala, nazioarteko ipuingintzarekiko nahikoa paraleloan.

Baina agian ez da hori kontua, baizik eta nola dirauen nahiko tinko nobelaren inperialismoaren uholde betearen erdian: euskal argitaletxeek, hori argi dago, nahiago dituzte nobelak –bezeroak, gutxi izanda ere, beti arrazoi–, baina ipuin liburuak argitaratzen segitzen dute eragozpen handirik jarri gabe. Agian benetako misterioa, euskararen kasuan bezala, ez da hainbeste euskal ipuingintzaren jatorria edo bilakaera, gaurdaino indartsu samar iraun izana baizik. Eta Elenak kaiera atzera zabaldu, eta “Mitxelena / euskara / analogia” idatzi du, letra ñimiñoegiaz betiere.

Irautea. Elenak ez zuen uste Aritzekikoa iraungo zuenik. Udako oporrak markatu zituen muga gertagarri gisa, Aritz, ikasturtea amaituta, bere herrira itzuliko zelako eta guztia zailagoa, oztopoz beteagoa bihurtuko zelako, ondorioz. Baina, nola hala, moldatu egin ziren elkarrekin jarraitzeko –Whatsappa, bere arrisku domestiko guztiekin, iraunarazle ezin eraginkorragoa suertatu zen–, eta are bizpahiru enkontru gautar antolatzeko aukera izan zuten, bien bizilekuetatik gutxi gorabehera distantziakide ziren kostaldeko herri beti ezberdinetan. Batzuetan Elenak Koldori begiratzen zion, eta harrিতuta geratzen zen bere egonarriaz, elkarrizketa domestiko adeitsuenei edo maitasunaren errito gero eta tartekatuagoi eusteko zeukan ahalmen mugagabeaz, are une haietako askotan Aritzekin oroitzen ari bazen, aldi berean. Azken batean, Aritzez maiteminduta zegoen arren, Koldo ere maite zuen, beste era batean –beste era *horretan*– izan arren. Literatura horren gutxi deskribatzeaz arduratu den era prosaiko, lasai horretan hain zuzen. Literatura gehiegi ari da maitemintzeaz eta desmaitemintzeaz, eta gutxiegi erdiko guztiaz. Maitemintzea bera ez al da literaturaren ondorio bat, funtsean? La Rochefoucoldek zioen bezala, “pertsonek ez ziren inoiz maiteminduko inoiz maitasunaz hitz egiten entzun izan ez balute”.

Beti beldur berarekin bizi zen, dena den. Ez, bereziki, Aritzek utziko zuen uneari: horrek ere eragiten zion, noski, baina ez zekien beldur hitzaz izendatzea ere merezi zuen, ondo baitzekien gertatu egingo zela, lehenago edo geroago; Brigitte eta Emmanuel salbuespena dira munduan, sexismoaren hamaikagarren erakusgarri gisa, alderantzizko ereduak, gizon zahar/neska gaztearenak, askoz ere kasuistika zabalagoa aurkezten duen bitartean, oro har, maila guztietan, txutxumutxuen eremutik hasita goi kulturarenera. Ez, bere beldur nagusia lotuta zegoen Koldo, bat-batean, lehen lauhilabeteko ikasle hartaz gogoratu, eta, zirtolari, harengatik galdetuko zion momentuarekin, bikote barneko txantxa pribatu moduan. Izan ere, harrituta zegoen oraindik gertatu ez izanaz. Eta aurrea hartzeko aukerak –eszena irudikatzeko eta, ondorioz, erantzun posible guztiak prestatzeko eta are haien bertsioen buru-entseguak egitekoak– are urduriago eta zalantzatiago paratzen zuen Elena, susmatzen baitzuen bete-bete huts egingo zuela Koldori erantzutean eta, modu batean edo bestean, ordura arte mantendu zuen oreka hautsiko zela. Ohartzen baitzen, paradoxikoki, Aritzekiko aferak etxean, Koldorekin eta are seme-alaba gero eta arrotzagoekin hobeto eta pozikago jarduteko aukera eskaintzen ari ziola. Eta hori “bekatua” bera baino larriagoa iruditzen zitzaion, kasik. Zegokiona baino zorion handiagoa desiratu izanagatik, Richard Russo parafraseatzearen.

Ustekabeak, ordea, beste nonbaiten egin zuen salto, hurrengo ikasturtearen hasieran. Eskolak hasi berriak ziren, baina lauhilabeteko horretan Elenak ez zuen eskolarik, eta oraindik ez zuen Aritz fakultateko korridoreetatik ikusteko aukerarik izan. Ezzuten enkontrurik adostu oraindik, baina bien arteko Whatsapp txatak udan bezain aktibo jarraitzen zuen. Halako batean, larunbatean, etxeko lauak bazkaltzen ari zirelarik, Junek galdetu zion Elenari, ohi bezala gaztelaniaz:

–Ama, ¿conoces a Aritz? ¿Aritz Urigoitia? ¿Le has dado clase?

–Sí, creo que sí –erantzun zuen totelka, buruari eraginez gogoratzen ahalegintzeko ea Koldori aipatu ote zion bere ikaslearen izen-abizenak, ala ez–. ¿Por qué?

–Nada, le conocí en verano en Sopela, y el jueves me lo volví a encontrar por la Kutxi –Koldok, labean egindako lupia platerarekin oso lanpetuta zebilenak, ez zuen zirkinik egin, eta, ondorioz, ezetz erabaki zuen Elenak, ez zizkiola senarrari aipatu mutilaren izen-abizenak, bere garaian–. Me dijo que estudiaba filo, pero hasta ahora no se me había ocurrido que igual podía haber sido alumno tuyo.

–Pues sí, sí que lo fue...

–¿Es bueno?

–¿Cómo?

–Si es buen estudiante...

–No me acuerdo bien... Además, no está bien hablar del expediente de los estudiantes en este... contexto...

–Venga, ama, si lo haces cada dos por tres –parte hartu zuen Xabik, bere arrebaren alde eginez, harrigarriki, txakurra eta katua bezala ibiltzen baitziren normalean.

–Pero sin dar nombres.

–Ya, seguro. También aita habla de sus clientes, y de los concursos que le roban en los ayuntamientos...

Koldok barre egin zuen.

–Vale, pero eso es diferente, son todos unos cabrones –jarraitu zuen aitak– . Deja en paz a la ama, tiene demasiados alumnos como para acordarse bien de todos.

–Lo que pasa es que esta le ha echado el ojo al Aritz ese y quiere un informe completo... –Xabi hori ezagunagoa egin zitzaien bazkaltiar guztiei.

–Imbécil –Junek.

–Bueno, bueno, tengamos la fiesta en paz –moztu zuen aitak.

Zorionez, elkarrizketa, Koldoren esku hartzearen ondoren, beste norabide batetik joan zen, eta kontua ez zen gehiago atera. Hala ere, Koldo eta biak bakarrik geratu zirenean, harrikoa egin eta sukaldea txukundu bitartean, Elenak aurreko kurtsoaren hasieran liluratuta zeukan mutiko hari buruzko iruzkin burlatiren baten zain geratu zen, dardarka, eta baita ondoren ere, beren ohetara joan zirenean. Baina Koldok ez zuen gaia atera. Hala ere, Elenak gaizki egin zuen lo, Juneren komentarioak buruan. Ez zuen sekula sinetsi izan amen eta alaben arteko lehia absurdu horietan, edo alaben gaztetasunaz eta edertasunaz jelskor zeuden ama petralen iruditeria susmagarrian. Baina beldur bat sentitu zuen, lotsatik hurbil zegoena: bere bizitza *The Graduate* filmaren bertsio merkea bihurtzearen arrisku hipotetikoari hain zuzen ere. Galdetuko al zion zerbait bere alabari biharamunean? Edo gau horretan bertan, Whatsappez, Aritzi?

Ezta pentsatu ere.

Txikitasunaren abantailak (baleude)”. Literatura txikia eta minorizatua izateak harremana izan dezake ipuingintzaren sendotasun erlatiboki handiago horretan, zer esanik ez. Mahaira ekarri dioten hirugarren garagardoari hurrupa egin ondoren, “Saizarbitoria” eta “E. Rodriguez” idatzi du kaieratxoan, bata bestearen azpian, biok bat baitzetozen hipotesian, nahiz eta idazle donostiarra orokorrean ari zen, euskal literaturaren asmo garaiei buruz alegia, esperimentazioari tarte handiagoa utziko liokeena, eta kontsumoko literaturari espazio gutxiago. Rodriguezek, ordea, ipuingintzaren indarrari egiten zion, zehazkiago, erreferentzia, oso antzeko terminoetan, merkatu gorabeheretatik babestuago legokeen biotopo literario txikian garatzeko aukera handiagoak dituela iradokiz.

Izan ere, eta nobelaren nagusigo guztiak gora-behera, euskaraz posible izan da ipuin liburu bat *best seller* bihurtzea, gertakari aski gaitza dena frantziar edo espainiar literatur sistemetan, adibidez. Eta *best seller* esapidea marra bikoitzaz azpimarratu du Elenak, horrekin ez diolako soilik erreferentzia egin nahi salmenta handiak lortu ditzakeen lan bati, baizik eta ipuin liburuaren maila literario berari ere, Jon Arretxeren *Ostegunak* edo Jasone Osororen *Tentazioaken* kasuek ondo irudikatzen duten bezala: ikaragarri saldu zuten ipuin liburuak, argitaratu zirelarik, baina kalitatearen aldetik –Elena eskuzabal sentitzen da– erdipurdikoak zirenak. Inguruko merkatu literarioen arau orokor bat hautsiz, beraz: argitaratzera iristen diren ipuin liburuak, produkzio osoaren gaineko ehuneko horren txikia izaki, eta bahe estuagoa pasatu ohi dutenez, kalitatezko literaturaren eremuan sartu ohi dira ia salbuespenik gabe, nobelagintzan gertatzen den ez bezala. Ipuingintzak euskal sistema literarioan okupatzen jarraitzen duen anomaliaren isla izan daiteke, ondorioz, fenomeno hori. Nahiz eta Elenak pentsatzen duen badaudela beste faktore batzuk, garai bateko hezkuntza ertaineko eta euskaltegi-tako “publiko gatibua” adibidez. Egun beherakorra dena literatur kontsumoari dagokionean, liburuek ez daukatelako jada, helduen eta gazteen hezkuntzan, 1990eko hamarraldiaren amaierara edo 2000koaren hasierara arte izan zuten zentraltasuna, ez hemen ez inon. Horrek, ondorioz, zaila egiten du ipuin liburuaren *bestsellerismoaren* fenomenoaren errepikapena, aurrerantzean. Nahiz eta ez dagoen sekula jakiterik, noski.

Bazkari haren ondorengo asteak sufrikarioa izan ziren Elenarentzat. Bera eta Aritzen mezu bitarteko komunikazioak beti bezain joria eta suharra izaten jarraitzen zuen; Elena batzuetan harritzen zen makina ergel horren bitartez bidaltzera ausartzen zen gauzekin: halakoei buruz irakurri edo seme-alaben bitartez jakin, bai, baina sekula ez zukeen usteko bera egitera iritsiko zenik. Baina, hala eta guztiz ere, ez zuten lortzen mutilarekin hitzordu bat finkatzea, arazo batengatik edo besteagatik; Elena ohartzen zen eragozpenak jartzen zituen, batzuetan, bera zela –agenda konplikatu zuen–, baina sinetsita zegoen desenkontruen erantzukizun nagusia Aritzena zela, hari inolako erri-tarik botatzeko bulkada ahal zuen bezala ekidin arren. Eta Elena irrikan bazegoen ere Aritzi Junez galdetzeko, edo Juneri Aritzez, isiltzea erabaki zuen, ez baitzuen paper patetiko hori jokatu nahi mutilarekin, edo

deskubritua izatearen arriskua hartzea alabarekin. June, aurreko kurtso osoa Danimarkan Erasmus beka batekin pasatu ondoren, itzulia zen etxera eta hirira, farmazia ikasketekin jarraitzeko, eta, ohi bezala, ostegunetan berandura arte irteten zen, eta ostiraletan are beranduago jaikitzen. Elenak aurreko gauean zer giro aurkitu zuen galdetzen zion gosarian edo bazkarian, filologiako ikasleekin juntatu ote zen... Hori zen urrunen iristen ausartzen zena. Junek, ohi bezala, monosilaboekin erantzuten zien bere galderari, erantzuten zienean.

Hura gertatu eta hurrengo ostegunean, ordea, bai ikusi zuela Aritz, baina ez berak desio zuen testuinguruan: mahai inguru bat egon zen Kultur Etxean, Irakurle Klubaren aurkezpen egunean, euskal literaturaren egungo egoerari buruz, eta han aritu zen Mikel Ayerbe kritikari eta lankidearekin eta Itxaro Borda idazlearekin. Elenari, zer esanik ez, ipuingintzari buruz hitz egitea egokitu zitzaion. Eta, publiko artean –aretoa handia zen arren, publiko gutxi zegoen, eta ondo ikusten zen nor zen nor–, Aritz zegoen, beti bezain lerdan eta erakargarri, Gasteizko udazkenak eramatera behartzen duen gehiegizko arropa kopurua gora-behera. Mahai ingurua, bere horretan, ondo joan zen, Elenak gorriak ikusi zituen arren, batzuetan, oroitzen zenean ezingo zutela elkarrekin egon, ekitaldiaren ondoren, mahaiko beste partaideekin joan behar zuelako afaltzera. Otorduaren osterako geratzen saiatu zen, gauerdian edo, baina Aritzek afaria ere izango zuela gaztigatu zion Whatsappez, eta ez zekiela adiskideez libratu ahal izango zen.

Galderen txandan gurutzatu zituzten aspaldiko lehen hitzak, Aritzek ekitaldian zehar esandako zerbaitetan sakontzeko eskatu ziolarik.

–Pozten naiz galdera hori egin izanaz –mutilaren izena ahora eramateko zorian egon zen Elena, baina azken unean, profesionaltasun handiz, ito ahal izan zuen–. Intuizio bat besterik ez da, baina. Euskal Herria Ipuin Herrialdea zergatik izan daitekeen eztabaidatzeko orduan, beste faktore batzuekin batera, hizkuntza-egoerak zer ikusia ez ote duen galdetzen nion nire buruari, besterik gabe. Baldin eta Ipuin Herrialdea dela onartzen badugu, noski –esan zuen Elenak barre txikiarekin, besoak zabalduz, Itxaro Bordak buruarekin ezetz adierazten zuela begi-bazterrez ikusi ondoren–. Hots, historia zartatu

bat izateaz gain, adostasun nazional askoren faltan egoteaz gain, hiru lurralde administratibotan zatitua egoteaz gain, eta abar, egoera diglosiko bat daukagu jaun eta jabe. Eta irudipena daukat ipuina ondo hazten dela hizkuntzek talka egiten duten lurraldetan, hots, hizkuntzek talka egiten duten idazleengan. Ez galdetu zergatik, oraindik ez dut nahikoa hausnartu kontuaz. Baina pentsa dezagun Kafkarengan, adibidez, alemanaren, yiddisharen eta txekieraren artean. Edo Borgesengan, gaztelaniaren eta ingelesaren artean; are tentatuta nago Cortázar hor sartzera, eta bere frantsesa, bere itzultzaile izaera... Edo Mavis Gallant kanadarra, ingelesaren eta frantsesaren artean. Ah, eta Jhumpa Lahiri, ingelesaren eta bengalieraren artean.

–Jhumpa Lahiri ez da ba nobelagilea? –bota du norbaitek publikotik, ez Aritzek baina.

–Izpirituz ipuinlaria da, nobelak idazten saiatzen bada ere; sentitzen dut, horretan oso ideia irmoak dauzkat... Izan ere, hizkuntzaz berriro ere aldatu delarik, orain italieraz idazten baitu, ipuinak idatzi ditu... Bale, ipuin luze bat, nobela gisa saldu duena, baina, funtsean, ipuin izaera duena. Eta, ados, denek aukeratzen dute hizkuntza bat, hasieratik; Lahiriren kasua, alde horretatik, pixka bat muturrekoa litzateke, noski... Baina hizkuntzen arteko talka hor dago, haien jardunaren erdian. Txekhoven lehenengo eskola, Taganrogeko bere sorterrian, mutilentzako gymnasiumera joan aurretik, grekoa zen, pentsa... Bi hizkuntza, hor ere...

–Baina, kasu horretan, espero izatekoa litzateke gaztelaniazko euskal idazleen artean ipuinerako joeraren zantzuak egotea orobat, ez duzu uste? Eta nik ez dut horren argi ikusten... –oraingoan parte hartu zuena Aritz izan zen, eta Elenak atzera sentitu zuen hutsarte hura sabelpean.

–Bueno, gaztelaniazko idazleen artean ere badaude ipuingile onak, Jon Bilbao bezala. Pedro Ugarte ipuingile hobea iruditzen zait nobelagilea baino, Aixa de la Cruz berdin... Baina markoa, parametroak beste batzuk dira, literatura hegemonikoarenak noski. Eta espainola, sentitzen dut, Nobela Nazio bat da...

Aritzek ez zuen beste ezer galdetu, eta eztabaidak beste norako bat hartu zuen ondoren, saioa amaitu arte, ez beranduegi halere. Elenak, oholtzatik jaitsi eta bera entzutera etorritako adiskide eta ezagunekin elkartu bitartean, bistarekin bilatu zuen Aritz, eta mutilak keinu bat egin zion, nahiz eta ez zuen jakin zehazki nola interpretatu. Are gutxiago kontuan hartuta Koldo aretora sartu eta mutilaren ondotik pasatzen ari zela. Une batez begirada bat gurutzatzen zutela iruditu zitzaion Elenari, baina Aritz, malguki batek bultzatuta bezala, ezarian alde egin zuen aterantz, Koldo, beragana hurbildu, bi muxu eman eta zer moduz joan zitzaion galdetzen zion bitartean. Ez zen sekula joaten bere hitzaldietara “asko sufritzen zuelako” bera urduri ikusita, “katedran”. Baina batzuetan bila joaten zitzaion ekitaldia amaitzen zenean, ordukoan bezala, nahiz eta Elenak ez zuen jada gogoratzen noiz izan zen azkeneko aldia. Oso aspaldi, hori seguru. Haiekin afaltzera gonbidatzera beste erremediorik ez zuen izango, eta Elenari ez zitzaion inporta, Koldo gizartekoa zelako, bera baino dezente sinpatikoagoa, eta ziur zegoelako ondo pasatuko zutela denek elkarrekin. Baina pentsatu zuen, atsekabe puntu batez, edozer eginda ere, gau hartan ezin izango zukeela Aritzekin elkartu, azkenean.

Berandu iritsi ziren etxera, baina ez, halakoetan gertatu ohi zitzaien bezala, June baino lehenago, oraindik ere parrandan ibiliko zena alde zaharreko tabernetan barna. Xabi bere kobazuloan sartuta egongo zen, PS4arekin jo eta su, logelako ate azpitik filtratzen zen argi-xirripa dardaratiak salatzen zuen bezala. Ibuprofeno bana hartu eta ohera sartu zen bikotea, baina Elenak bazekien ez zuela ondo lo egingo, ardo gehiegitxo edan zuelako afarian, eta, ajea kontrolpean mantentzeko pilula gorabehera, behin eta berriro esnatuko zelako gauean zehar, kirioak jota. Junek Aritzekin topo egiten zuela amestu zuen, barre egiten zutela zerbeza batzuk hartu bitartean, elkarrekin hasten zirela dantzan kristalezko bola distiratsu baten errainuen azpian. Baina agian ez zen amets bat izan, esnatzen zen uneetan irudikatzen zuen zerbait baizik.

Halako batean, hori ere ez zekien amestu zuen ala ez, giltzen soinua entzun zuen kaleko ate aldetik, eta Juneren urratsak. Junerenak, eta beste

norbaitenak: ez zen lehenengo aldia halako zerbait gertatzen zena –guraso liberal bezain ulerberak ziren, azken batean–, eta ondo ezagutzen zuen etxean elkarrekin sartzen ziren bi pertsonak, are isilka ibiltzen saiatuta ere, korridorean sortzen zituzten soinu-uhinak. Juneren xuxurlak eta barretxo itoak bereizi zituen, baina ez laguntzen zien beste pertsonarenak.

Haietan ere zerbait ezaguna egin zitzaion arte. Elena ohean tentetu zen derrepente, eta pasilora ateratzera zihoan, beste ohean Koldo mugitu eta “¿qué pasa, cariño?” esan zuen arte, oraindik lo zegoela adierazten zuen ahots oretsuarekin. Orduan kieto gelditu zen bere ohean, eta halako batean ahotsak eta zaratatxoak entzuteari utzi zion, ez zuen jakin Juneren gelaren atea itxi zen ala ez, eta erabaki ezinik geratu zen ametsetan ala esna jarraitzen zuen. Berriro etzan zen, hortaz, edo etzanda jarraitu zuen eta beste aldera eman zuen buelta.

Biharamunean ez zeukan buruko minik, baina neka-neka eginda zegoen. Koldo ez zen inon ageri, lehenago altxatua zen. Komuneko ispiluan bere isla aztertu eta masail erdi bana kolonizatzen zioten betzuloak madarikatu zituen. *Eye contour* bat bilatu zuen, aztoratu antzean, nezeserren artean – bere bainugela nahaspila bat zen, aitortu beharra zuen–, Aritz edozein unetan Juneren logelaren atea zeharkatuko zuela espero zuen arren, edo horregatik hain zuzen ere. Non zegoen krema-tubotxo madarikatua, bat baino gehiago zeukala uste zuen. Absurdoa zen, bazekien. Filorga markako bat topatu zuen, azkenean. Begientzako makillajearen freskura atsegina iruditu zitzaion, baina betzuloak ez ziren, zer esanik ez, desagertu. Kanpoko atea entzun zuen orduan: Koldo zen, kalera kruasanak eta ogia erostera atera zena. Bazekien zein zen haren helburua: Junerekin gaua pasatu zuenari abegi ona egitea, aita progreaden papera antzeztuz, beraiekin gosaltzera gonbidatuz, June lotsarazteko. Aspaldiko jolasa zen, June k mutiak etxera ekartzen hasi zenetik, aukera suertatzen bazen, burutzen saiatzen zena. Ez zuen sekula asmatzen, zer esanik ez, eta sarkin gehienek, gau batekoak ala sarritxoagokoak izan, uko egiten zioten, logikoa zen bezala, gosariari, eta ihes egiten zuten etxetik, hitz erdizka botatako desenkusen artean, Juneren atzeraeginezko suminerako. Pailazokeria bat zen, eta Elenak onartzen zuen beste batzuetan grazia egiten ziola. Baina egun hartan ezingo zuen jasan.

Kafe eta kruasan usaina etxe guztiaz jabetuta zegoen Juneren atearen kirrinka entzun zenean. Koldo eta Elena korridorera atera ziren, eta itzal bat ikusi zuten bainugelara bizkor bideratzen. Neska bat zen, bientzat ezezaguna. Koldok sekulako irribarrea egin zuen, zein aurrerakoia zen erakusteko aukera paregabe harekin alde zurretik gozatzen.

Elena sukaldeko aulkietako batean amildu zen, gorputzean zeukan energia apurra ahitu egin balitzaio legez, eta kafe kankarro bat zerbitzatu zion bere buruari.

Karolina –hala deitzen baitzen neska, gero jakin ahal izan zutenek– ez zen gosaltzera geratu, espero izatekoa zen bezala. June muturtua egon zen haiekin egun erdiz. “Sois muy tontos”, esan zien behin eta berriro.

Bai, ergelak gara, eta ni inor baino gehiago, pentsatu du Elenak. Anomalia bat. Euskal literatura anomalia bat izan zitekeen bezala, haren homologazio eta “normalizazio” ahalegin guztiak gora-behera. Eta agian ipuingintza hori zen, besterik gabe, anomalia horren beste erakusgarri bat. Bertsolaritza bezala, bururatu zaio une batez, horre puntu batekin. Ez da kaieran apuntatzera iritsi, badaezpada. Baina ezin du ekidin euskal ipuingintzaren inguruan azken urteotan detektatu dituen bitxikeria asko, agian, hori besterik ez direla, normaltasun nahiaren eta berezko izaera anomalaren arteko tentsioaren ondorio bat. Zeren eta batzuetan ematen du ipuingintzak sekulako prestigioa duela, gurean, eta beste batzuetan nobelatriara makurtzen dela euskal literatur sistema. Ohartua zen, adibidez, Susa argitaletxean, garai batean, politika egon zela ipuin liburu gisa iritsi ahal izan zitzaizkien lanak nobela “bihurtzeko”. Halako hiru kasu ezagutzen ditu, gutxienez, eta koadernoan apuntatu ditu: Mikel Antzaren *Atzerri*, Mikel Tabernaren *Alkasoroko benta*, eta Koldo Izagirreren *Lorea Gernika*. Horiek, esan bezala, Elenak susmo sendoenak zituen kasuak besterik ez ziren, eta auskalo izebergaren punta baino ez ziren. Garai batean lankideen artean erabili zuten inoiz, txantxarako, gaia, adagio bihurtuta ia: “Zer da nobela? Susak erabakitzen duena”.

Beste muturrera ere joaten da batzuetan euskal literatura, nobelaren gurtzari muzin eginez, eta, modu batean edo bestean, ipuinak gurean oraindik duen prestigio apur horri dei eginez. Batzuetan justifikazio handirik gabe, Miren Agur Meaberen *Hezurren erretura* liburuaren kasuan bezala, gehiago duena nobelatik ipuin liburutik baino: testuetako askori, hizkuntzaren txinparta guztiak gora-behera, ipuinak beharko lukeen eztena edo barne-indarra –*puncha*– falta zaielako, nobeletako atalei gerta dakiekeen bezala alegia, eta “ipuin-atal” batzuek ez daukatelako autonomiarik apenas, irakurlea ezin baita haietaz ondo jabetu aurrekoak leitu gabe, ipuin liburuaren printzipio nagusietako bati uko eginez, beraz. Eta, beste batzuetan, are ausarkeria moduan, produktuari egin dakioken balizko kalte komertzialari kasurik egin gabe, Unai Elorriagak *Iturria* liburuarekin egin zuen bezala: oso erraza zeukan soilik nobela gisa aurkeztea, osatzen duten ipuinen haria –kasu horretan ipuinetatik guztiz berezita ageri dena– edozein nobelarena bezain sendoa den neurrian. Baina egia aitortzeko hautua egin zuen, eta “nobelaz mozorrotutako ipuin-liburua” zela iragarri, Elenari goraiagarria iruditzen zaiona. Elorriagaren baieztapena zehaztu du sakelakoaren bitartez egin duen Google bilaketa bizkor batez, eta buelta eman dio, *Hezurren erreturaren* aipuari gehitzeko, koadernoan: “Ipuin-liburuz mozorrotutako nobela”.

Beste hurrupa bat jo dio bere zerbezari.

Horrekin kontrastean –bururatzen zaio–, deigarria da zein temati aritu zen Bernardo Atxaga bere *Etxeak eta hilobiak* lanaren nobelatasuna defendatzen, garai bertsuan, eta kontrako edozein iradokizunari aurre egiten, batzuetan are haserrearen mugetan, hain zuzen Gasteizko Kultur Etxeko beste mahai inguru batean Elenak berak egiaztatu ahal izan zuen bezala. Eta, ados, idazlea guztiz burujabea da erabakitzeko zein etiketarekin plazaratuko duen bere lana. Eta horrek, zalantzarik gabe, pisu handia du, irakurlearen harrera dezente baldintzatzen duelako. Baina idazleei batzuetan ahazten zaie irakurleak ere baduela bere subiranotasun-kuota ere, txikia izan arren, eta bestela interpretatu dezakeela eskura etortzen zaiona. Eta hor Elenak badu emendakin bat, *Etxeak eta hilobiak*, pertsonaia konpartituen gainetik, eta Atxagaren ahots narratibo zoli eta

eskarmentudunaren gainera ere, ipuin liburua iruditzen zaiolako gehiago, nobela baino. Are gehiago, ipuin liburu gisa, eta ekonomiaren printzipioa zorrotzago aplikatuta, hobeto funtzionatuko lukeela esango luke. Atxaga kontalari bikaina delako, horretan ez dago zalantzarik, baina, prosari dagokioenean, bere izaera funtsezkoa –Borgesena bezala, Cortázarrena bezala...– ipuingilearena delako, ez nobelagilearena.

Nobelagile peto batek, esaterako, ez du honela hitz egiten generoari buruz –eta Elenak gogoan zeukan Atxagari egindako *Argiako* elkarrizketa bilatu du sarean, eta, gero, kopiatu du kaieran–: “Esaten da haritzaren azpian ez dela ezer sortzen. Nobelaren azpian ere ez da ezer sortzen, erre egiten du azpian dagoen guztia. Eman dezagun, liburu hau [*Etxeak eta hilobiak*]: aurreneko urtea pasa dut desbideak hartzen, atzera-aurrera, denbora, orduak... Eta gero itzultzen. Iruditzen zait ez dagokidala jada. Sukaldea jaso behar dut”. Ez, zinezko nobelagile batek –pentsatzen du–, gehiago egingo luke Will Selfena bezalako adierazpena: “Fikzioa idazten plazera besterik ez dut lortzen; ipuinak atariko jolasak dira, nouvelleak laztan biziak, baina nobelak konpleto bat dira. Egia esan, nobelak idaztea gustatuko ez balitzait, ez nuke halakorik egingo: munduak apenas behar ditu gehiago, eta nire trebetasunak dituen norbaitentzako gauza askoz ere baliagarriagoetan pentsa dezaket. Den bezala, mundu paralelo baina sinesgarrietan murgiltzeak nire eskari guztiak asetzen ditu ordeko esperientzia, voyeurismo eta gimnasia filosofikoari dagokienean. Are idazketaren mekanikaz gozatzen dut, idazmakinarekin teklen tinbal lotsatiaz, oharrak hartzeaz –ohar asko hartzeaz–, eta denetan erakargarrienaz: papergintza materiala erosteaz”. Ordenagailuaren aurreko mundua gogora ekartzen duen arren, irudia esanguratsua iruditzen zaio, oraindik ere.

Eta Elenak ez du horrekin pentsatzen, ezta gutxiago ere, Atxagak gaizki egin zuenik nobelaren bide luze eta malkartsuari ekitean. Meritu ikaragarria dauka. Izan ere, karrera literario bat eraiki ahal izan du horrela, eta inoizko euskal idazle arrakastatsuen eta nazioartekoena bihurtu da. Are gehiago, goresgarria iruditzen zaio guztiz, zerbaitek euskal literaturari “normaltasun” indiziorik inokulatu badio erabaki hori izan zelako, besteak beste. Baina pentsatzen du, halaber, Atxagak ez ziola utzi, horregatik, ipuingile izateari,

McEwani gertatu zitzaion bezala. Eta euskal literatura garaikidea zeharkatzen duen normaltasunaren eta anomaliaren arteko dialektika horren barruan, zeinetan, zer esanik ez, eta zorionez, ipuina anomaliaren aldera lerratuko balitzatekeen, oro har, harrigarria egiten zaiola, batzuetan, Atxaga bezalako idazleengan detektatzen duen ipuinarekiko gutxiespen modukoa. Are gehiago kontuan hartuta nola ikusten duen, idazle gisa, asteasuarra. Horretan ere, hainbeste gauzetan bezala, erratuta egon daitekeen arren, noski.

Aritzekin egon zen bezala, hain zuzen. Edo agian ez, oraindik ezin izan du erabaki. Azkenean lortu baitzuen harekin hitzordua egitea, ikasturte hasiera arraro horretan. Bi aldiz arraroa, pentsatzen du orain Elenak, bi arrarotasun gainjartzen baitziren bata bestearen gainean: amorante gazte bat izatearena, lehengo urtetik zetorrena, eta berria, desenkontruarena, amorantearekin ezin elkartu ahal izatearena. Mahai inguruarena gertatu eta hurrengo astean, azkenik, Whatsapp mezu-kate korapilatsu baten ostean, lortu ahal izan zuten gelditzea, ordura arte erabili ez zuten hiriko periferiako hotel berri aseptiko horietako batean, Elenari sentimendu kontraesankorrak eragiten zizkiona: alde batetik, eszenatoki zatarrak eta inbertsonalak iruditzen zitzaizkion; bestetik, etxean bota beharreko aitzakia –Zaragozarako bidaia, literatura iberikoen lan-talde batekin bilera, nazioarteko kongresu baten antolaketaren inguruan– arinagoa egiten zitzaiolako nolabait, Zaragozan ere antzeko hotel arrunt batean hartu beharko zukeelako ostatu, ziurrenik. Burmuinaren kimikaren trikimailu ergelak.

Gaua ondo joan zen. Ezer gertatu izan ez balitz bezala. Gela-zerbitzuari eskatu zioten afaria, biei gustatzen zitzaien janari txinatarra, eta Albariño botila bat, osorik hustu zutena eta mihia askatzen lagundu ziena. Asko hitz egin zuten: literaturaz –noski–, unibertsitateaz, estudiante pisuetako eta parrandetako anekdotez –Aritzek–, filmez eta telesailez, politikaz –biek ere, baina oso modu ezberdin eta batzuetan kontrajarrian, ez iritziengatik, iritzi horiek botatzen zituzten talaien ezberdintasunagatik baizik–. Ez zuten aurreko asteetako desenkontruaren gaia atera, ez batak ez besteak. Elena saiatu zen, horren guztiaren azpian, aurreko asteetako ezinegonaren arrastoak topatzen, pistaren bat emango zion zerbait, baina ez zuen ezer

sumatu, mutilarekin egoteko pozaz harago, eta bere burua madarikatu zuen, une batzuetan, poz horretaz osoki disfrutatzeko bere ezintasun neurotikoagatik. Gero maitasuna egin zuten, mantso, goxo, beharrezko luzamendu guztiakin. Hor ere ez zuen ezer ohiz kanpokorik nabaritu, gorputzak aspaldi eskatzen zion zor baten kitapena ezik. Aritz berehala gelditu zen lo bere ondoan, inbidiagarria egin zitzaion sakontasun bete bezain arduragabearekin.

Elenak, ordea, ezin izan zituen begiak bildu. Eta halako batean, amildegia ertzaren erakarpenak bultzatuta bezala, pixka bat altxatu, eta, Aritzen gorputz epelaren gainetik besoa luzatuz, haren sakelakoa hartu zuen mesanotxetik. Ez zeukan gakorik –kontzientzia garbiaren seinale, ala soilik axolagabeziarena?–, eta hatz ukaldi batez zabaldu ahal izan zuen menua. Erruduntasun sentimendu gero eta handiagoz, Whatsappeko txatak errepatatzen hasi zen, amorante gazteago batenak izan zitezkeen mezuen bila. Baina bien arteko ez gain, lotsaturik, ez zuen mota horretako besterik aurkitu. Jaisten eta jaisten jarraitu zuen mezutegian, hilabeteetan atzera eginez; nabaria zen Aritz, bera ez bezala, mezu bakar bat ere ezabatzen ez zuen horietakoa zela. Eta orduan ikusi zuen. Biribiletako baten barnean, Koldoren argazkitxoa, eta zabaldu zuenean, baiki, bere senarraren telefono-zenbakia. Mezu gutxi ziren, laburrak, guztiz aseptikoak, elkartzeko hitzorduak adosteko: kafetegi batzuen izenak, ordu batzuk, gora altxatutako hatz potoloen emojiak. Ez oso sarriak, bizpahiru hilabeteko tarteeekin askotan. Lehenengoak Aritz eta bien arteko afera hasi baino pixka bat aurrekoak.

Eta ipuina berreraiki egin zuen istant gutxietan bere buruan. Etxean bota zituen lehenengo iruzkinak, maiteminduta omen zeukan ikasleari buruz. Koldoren galderak eta txantxak, beraien arteko jolas pribatu bihurtu zenean. Eta, pixkanaka, senarraren gogoan eratzen joango zen ideia, Elenaren inpresio ziurrenik faltsu hura, oinarririk izatekotan, gauzatzeko antolaketa: nola bihurtu biak, ikasle eta irakasle, amorante. Ez zitzaion zaila izango ikertzea nor zen mutila, eta harekin kontaktuan jartzea. Eta, ondoren, noski, estudianteari buruzko Koldoren isiltasun –orduan ohartu zen– guztiz anormal hura. Nola lortuko zuen horretara bultzatzea? Diru truke, ziurrenik:

gradu berria bere kabuz ordaintzen ari zen Aritz, eta, izan ere, harremana estutzen hasi zirenean, klase partikular batzuk ematen ari zela kontatu zion, eta AEKra curriculumuma bidalita zeukala, euskaltegiren batean ordezkapen bat egiteko, aukera sortuz gero. Baina egia zen halako kontuei buruz hitz egiteari utzi ziola une batetik aurrera; ados, Elenak ordaintzen zituen hotel gastuak, eta antzekoak, baina Aritz ez zuen sekula diruarekin kezkatuta ikusi, hasieran ezik. Hortik hitzordu horiek guztiak, hilabeteetan zehar: kontu korrontea konpartitua zutenez, Koldo ezin zen arriskatu ordainketa horiek guztiak transferentzia bitartez egitera; Elenak berak eskudirutan ordaintzen zuen Aritzekin batera egindako gastu oro. Eta ziur zegoen, bestalde, dirua ez zela izan Koldok Aritzi eman zion gauza bakarra: ipuingintzaren inguruko argudio haiek guztiek, *Dekameroneaz* eta iraultza burgesaz, eskoletan liluragarriki erabili zituenek, eta galdera beti horren pertinente haiek guztiek, senarrak berak pasatu ahal izan zizkiola susmatzen hasia zen, sedukzio jokoan eragina izan zezaketelakoan. Eta Elenak hala izan zela aitor zezakeen, baiki.

Zer motibazio izan zezakeen senarrak, hori beste kontu bat zen. Ezin zuen baztertu libertimendu hutsa izatea, Koldo horrelakoa baitzen, jolas zalea; beti izan zen, Elena ez bezala. Haren desleialtasun bat ezkutatzeko ke laino bat, kulpa murrizteko alibi bat, berdinketa moral bat lortzeko amarrua? Ez zen baztertzekoa, baina ez zuen uste, auskalo zergatik, jadanik ez baitzekien zer pentsatu. Opariaren hipotesia gertagarriagoa begitantzen zitzaion: hura zen Koldok egiten zion erregalua, bere buruarekin hobeto sentitzeko, fantasia ergel bat gauzatzeko, behingoz literarioa izango ez zen abentura bat bizitzeko. Eta, bidez batez, bien arteko egoera leuntzeko, urteek higitutako harremanaren tentsio guneak koipeztatzeko. Izan ere, horretaz ere ohartua zen Elena, bien artekoa aspaldi baino hobeto eta lasaiago zihoan, beraren kezka eta beldurrak beste foku batean, Aritzengan ipini zituenetik.

Aritzena erraza zen irudikatzen. Are, kontuak eskatuz gero, eduki zezaketen elkarriketa imajina zezakeen. Jakina sentitu zuela, hasieratik, zerbait beragatik. Mirespena. Lilura. Eskolak ikaragarri motibagarriak iruditu zitzaizkion. Erakarmen intelektuala. Fisikoa ere, zergatik ez: seguru hori ere azpimarratuko zuela mutila, barru onekoa baitzen, edo hori uste zuen bederen. Koldoren dirua tartean egon izan ez balitz egingo zukeen? Auskalo.

Azken finean, Aritz ez zen inolako pausorik ematera ausartuko baldin eta Elenak ere gustuko zuela jakin izan ez balu, eta hori Koldoren bitartez baino ezin izan zuen jakin ziurtasunez. Kontua da egin, egin zuela. Eta orduan xamurtasun bat sentituko zuela Elenarekiko. Hazten joan zen zerbait. Hura erreala zen. Benetakoa zen. Berdin zion zein izan zen hasiera, benetako bihurtua baitzen.

Bazekien hutsuneak zeudela ipuinean. Elipsiak. Desfaseak. Eta ziur zegoen egunen batean osatu ahal izango zituela. Baina ez oraindik.

Ez zegoen kuidadorik: are zarata handiagoa egin izan balu atzera jantzi eta hoteleko gelatik ateratzean, Aritz ez zen esnatuko. Autoa hartu eta, erdigunera joan beharrean, hiri irteerarantz abiatu zen. Gurasoen etxea zenetik pasatuko zen, Tolosatik, eta gaua han igaroko zuen. Agian hurrengo eguna ere bai, oraindik goiz izango baitzen inork haren falta sumatu aurretik. Biharamunean bertan idatziko zuen sailera, egun batzuetan eskolak bertan behera utzi beharko zituela abisatuz, xehetasunik eman gabe; gero gerokoak. Ondoren, gurasoen etxea zenetik arropa pixka bat hartuta, beste norabait joango zen, Koldok, bilatzen hastean, hara joko baitzuen lehenik eta behin. Kostaldera joango zen, hotel batera. Agian Landetara. Itsasoa ikusteko desioa zeukan, bista ostertzean galtzeko, olatuen mugimenduek pentsatzen laguntzen baitziote; ez dago Joxe Azurmendirekin batere ados, hark aldarrikatzen zuelarik itsasoa estetika superfizial bat dela. Edonola ere, hara iritsita, ez zien, zer esanik ez, telefono deiei eta mezuei jaramonik egingo. Ez behintzat denbora batez.

“Ipuina adulterioa da”. Berarekin eraman duen kaieraren lehenengo orrialdera itzuli da, eta ozen irakurri du. Zalantza asko sortzen zizkion esaldiak, baina horrela, ahots goran, aitzakiarik gabekoa iruditu zaio, planteamenduak badaramala egia bat bere baitan. Egiaren zati bat, bederen. Ondoren, idatzitako ohar guztiak berrirakurri ditu, zuzenketa txikiren bat eginez, edo asterisko batzuk gehituz han eta hemen. Badauka eskema. Orain bakarrik hitzaurrea erredaktatzea falta zaio.

Erlojuari so egin dio, eta gero itsasoan galdu du begirada. Ordu erdiko atzerapena daramate, biek ala biek. Bakarrik dago pasealekuko terrazan, sasoiz kanpoko arratsalde eder eta hotz hartan. Ez daki nor helduko zen lehenengo, Koldo ala Aritz. Ezta bietakoren batek huts egingo duen, ala biek. Edo are elkarrekin etorriko ote diren, konpontxo eginda, auto berean: bilerarako deialdia bidali zienetik Whatsapp desaktibatu, eta posta elektronikoa zabaltzeko tentazioari eutsi dio.

Horrela literarioagoa da dena. Ipuin batean bezala.

Zarata bat entzun du bere atzean. Ez du burua itzuli, eta hondartzan olatuak nola hausten diren kontenplatu du hamaikagarrenez. Norbait hurbildu da mahaira, baina ez da esertzera iritsi. Zerbitzaria da, beste zerbait behar duen galdezka.

Eta beste garagardo bat eskatu du. Azkenekoa, gaurkoz, agindu dio bere buruari.